

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko martxoak 18 - 1221. zenbakia



EUSKARAREN ETORKIZUNA IRUDIKATZEN



dica.

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arrogueta 27 20600 Eibar
Arretxe 9 20730 Azpeitia

www.urrategiinteriorismo.com





Aurrematrikula: martxoaren 28tik apirilaren 8ra

ATE IREKIAK martxoaren 28an (18:00 h.)

aurrez **izena eman** behar da **943 899 262** telefonoan edo **013597aa@hezkuntza.net**



Jardiñeta 3, Eibar

22. korrika **aek**
KULTURALA
KULTIBALIA

40 urteak beteta badituzu eta bizitzako aro berri batean sartu zarela oraindik onartu ez baduzu... animatu hurrengo testa erantzutera: Supositorioen belaunaldikoa zara?

Ez al dituzu parrandako abestiak ezagutzen? Guraso bihurtu zara? Txikitako kontuak behin eta berriz errepikatzen dituzu?... Horrelako bizipenak eta beste hainbat gehiago entzun nahi badituzu, TXIKIrekin batera **BARRE ALGARA FESTAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA HEMEN DUZU.**

SARRERAK

martxoak 21, 25 eta 28
leihatilan (17:30-19:30)
eta egunean bertan
ordubete lehenago



Euzkara Elkartea

40 URTE
ETA ALDAPAN BEHERA NIEK

Ion Martinez "Txiki"-ren
umorezko
bakarrizketa



Martxoak

31

EGUENA

19:00

Coliseoan

DOAN

**"Sasoi berrietan... irudi berria"**

...eta kitto! Euskara Elkartek bere irudi korporatibo berria eta, horrekin batera, astekariaren itxura eraldatua ere aurkezteko ekitaldia egingo du datorren asteko egunean, hilaren 24an, Portaleko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan hasita. Elkarteko bazkideak eta herritarrek, oro har, gonbidatuta zaudete. Etorriko zaretela baieztatze eskertuko genizueke elkartea@etakitto.eus helbidean hori adieraztea. Bestalde, ekitaldia streaming bidez jarraitzeko aukera egongo da ...eta kitto!-ko Youtubeko kanaleko lotura honetan:



Hori dela-eta, datorren asteko alea beti bezala barixakuan kaleratuko badugu ere, inprentara egun bat aurretik bidali beharra izango dugu. Horregatik, bertan berririk azaldu nahi baduzue eta zorion-tarte edo eskelarik publikatzeko asmoa baduzue, jakin berri horiek martitzenerako izan beharko ditugula gure artean, oraingoan eguzten eguerdian joango garelako inprentara.

Erredakzioa

"Zerk egiten ditu ukrainarrak 'errefuxiatu desiragarri' errefuxiatuak nahi ez dituen Europan? Netflix ikusten dute eta Instagramen dituzten kontuetara oporretako argazkiak igotzen dituzte. Moiran harrapatuta dauden milaka errefuxiatuek ere Instagram kontu bat dute zelaiko bizi-baldintzen berri ematen duena, baina ukrainarrei ez bezala inork ez die ostaturik eman nahi. Ukrainarrak klase ertainekoak direlako, 'jende arrunta' alegia. BBC-k ere gogorazi digu gerra 'Hirugarren Munduko' kontua dela; baina, horietako askotan Europa inplikaturik dagoen arren, ezin du oraingoa konprenitu. Bien bitartean, Ukrainan ikastera joandako milaka lagun herrialdetik atera ezinik dabilta muga zeharkatzea debekatu zaielako, zer eta Indiakoak eta Afrikakoak direlako"

ESTI EZKERRA, literatura kririkoa

"Belarritik tiratzeko ohitura antzinako Txinatik dator. Ekialdean uste zutelako belarrien tamainua pertsona horren jakinduriarekin bat zetorrela. Belarriak bizitza guztian jarraitzen dutelako hazten. Horregatik, lobulotik beherantz tiratzea, bizitza luzatzeko ahalegina izateaz gain, omenduaren jakinduria handitzeko nahia ere erakusten du"

GUILLE VIGLIONE, zutabegilea

"Gaur egun eskoletan umeei ez zaie irakurtzen eta idazten irakasten bost urte bete arte. Hori bai hanka-sartzea! Bost urterekin ez badakizu irakurtzen, aurreikustekoa da hamarrekin ez duzula jakingo idazten ortografia-akatsik egin gabe, eta hamabostekin ezingo duzula konplexutasun gutxieneko testu bati mamia atera. Zer esanik ez, gaur egun eskura ditugun teknologiek irakurtzetik eta idaztetik aldentzen gaituztenean. Gure seme-alabei hesgailua edo benda ipintzen badiegu begietan bost urte egin arte, kentzerakoan normala izango da fotofobia izatea. Edo, bakarturik edukitzen baditugu, misantropo bihurtzea"

JUAN MANUEL DE PRADA, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ODOLOSTE- Mortzilla, odolki. Eibarren ez da odolki esaten, beti odoloste. Gaztelarazko 'morcilla'. "Ondo izango da hiltzia odolostiak egiteko". Ze oste eta ze odoloste! Norbaitek egindakoa edo esandakoa ezeztatze erabiltzen den esamoldea.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)




TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

“Antxitxika Eibar” kirolaren praktika areagotzea helburu duen aplikazio berria aurkeztu dute

>>> Udalak, Wellk star-uparekin eta BIC Gipuzkoaren lankidetzarekin, “Antxitxika Eibar” egitasmoa jarri du martxan. Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten proiektua udaletxean eta, esandakoaren arabera, “eibartarren artean jarduera fisikoa sustatzea eta bultzatzea” da asmoa. Horretarako astelehenetik aurrera IOS eta Android sistementzat eskuragarri egongo den mugikorerrako aplikazioa garatu dute. “Antxitxika Eibar” aplikazioak Eibarren antolatutako kirol-jarduerak gomendatzen dizkie erabiltzaileei, kirol-planak egiteko lan-kideak bilatzea ahalbidetzen du, lagunekin ligak sortzea eta erronka komunitarioetan edota indibidualetan parte hartzea, horrela hainbat sari lortuz. Aplikazioan sartzean, erabiltzaileek Eibarren eskaintzen diren kirol-zerbitzu guztiak ezagutu ahal izango dituzte. Halaber, erregistratu ahalko dira, beren datu pertsonalak emanez, egiten duten jarduera mota edo egin nahiko luketena



adieraziz, beren beharrak azalduz edo duten ordutegi-aukera. Aplikazioak informazioa eman eta zer jarduera egin dezaketen gomendatuko die. Plataforma berrian Eibarko kirol-eragile guztiak hartzen dute parte. Programatutako lehen jarduera gisa, Osasunaren Mundu Eguna-rekin bat eginez, apirilaren 7an “Gure planeta, gure osasuna” izeneko erronka jarriko da abian. Aplikazioan eta erronkan erregistratzen diren guztiak kamisetara bana jaso ahal izango dute Ipurua eta Orbeako kiroldegietan.

Bertoko 500 zuhaitz landatuko dira aurten Zuhaitz Egunean

>>> Udaleko Ingurumen Sailak, Eibarko Klub Deportivoarekin, Eibarko Baso Biziak elkartearekin eta Lurgaia Fundazioarekin elkarlanean, Zuhaitz Eguna antolatu du domekarako. Aurten 500 zuhaitz edo zuhaixka autoktono landatuko dira (haritzak, urkiak, arteak, gorostiak, otsalizarrak, elorri zuriak, basaranak, astigarrak eta udareondoak), Lindarin, Urko mendiaren magalean Udalak zaintzapean duen lursailean: 2030erako Eskola Agenda programan parte hartzen duten zortzi ikastetxeetako ikasleek 250 zuhaitz landatu zituzten atzo eta beste 250



zuhaitzak domekan sartuko dituzte, herritar guztientzat zabalik egongo den jardunaldian. Bestalde, iazko apirilean hiriko hainbat auzotan landatu ziren zuhaitzen alboan identifikazio-seinaleak jarri dituzte.

Enpresa-inkubagailurako eskaera Debegean egin behar da

>>> Azitaingo enpresa-inkubagailu berriaren bulegoak erabili nahi dituzten enpresek eskaerak egiteko prozesua hasi da. Debegearen aldamenean dagoen inkubagailu berriak hainbat zerbitzu eskainiko ditu, dohainik. Interesa duten enpresak sartzeko eskaera egin ondoren, Udalak eta Debegeak baloratu dute eta, balorazioa

aldekoa bada, Debegeak kontratua ixteko izapideak hasiko ditu. Bulegoetan sartzeko eskaera Debegean aurkeztu beharko da, 943820110 telefono zenbakira deituta edo ekintzaile@debegea.eus posta elektronikora mezu bat bidalita. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.debegea.eus webgunera jo daiteke.



2030. urterako Eibarko mugikortasuna eraldatu nahi du EAJ-PNV alderdiak

>>> Entzunez Eraiki entzute aktiboaren dinamikaren baitan Mugikortasun Jasangarriaren Aldeko Alkateen Topaketa egin zen aurreko astean Errebal Plazan. Bertan parte hartu zuten Eneko Goia eta Gorka Urtaran Donostiako eta Gasteizko alkateak; Josu Mendicute jeltzale eibartarrak azaldutako hiri-garapenerako eredu babestu zuten. Bi alkateen esanetan, jeltzaleek Eibarrerako diseinatu duten etorkizunerako eredu bat dator beraiek abiatzen diharduten ekimenekin, "baita nazioartean erreferentzia diren hirietako ildo nagusiekin ere".

Topaketan identifikatutako gakoaren artean eskualdeko ikuspegi eta pertsonentzat berreskuratutako kaleak nabarmendu daitezke. Izan ere, Eibarren mugikortasun jasangarrirako EAJren proiektuan kaleak oinezkoentzat izatearen aldeko

apustu sendoa egiten da. Horretarako, talde jeltzaleak Aparkaleku Perimetralen Sarearen alde egin du, saihesbidearekin lotuta dauden gune estrategikoetan aparkaleku ugari izatea ahalbidetzeko. Mendicuteren berbetan, "helburua da oinez 5 minutura dauden lekuetan aparkatzea eta, horrela, kaleetan lekua berreskuratzea, kale bizigarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezken. 350 autok okupatzen duten lekua 8.500 metro karratu dira, hain zuzen ere beste batzuek trenbidea estaliz lortu nahi duten azalera bera. Guk planteatzen duguna da 2.500 aparkaleku perimetraletik gora egitea, eta horrek 40.000 m karratuko oinezkoentzako azalera lortzea ekar lezake hiri barruan".

Esandakoari buruzko azalpen zehatzak Eibarko EAJren webgunean aurkituko dituzue.



Zorionak Kids&Party ludotekak jaso du Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Saria

>>> Eibarko Zorionak Kids & Party ludotekak 2022ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du, Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sariaren XXVIII. edizioan. Sari banaketa ekitaldian, besteak beste, Jabier Larrañaga, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dipu-

tatua eta Elena Moreno, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaria egon ziren.

Ekitaldian, bestalde, "10 Bixiak", herritarrek aukeratuta Gipuzkoako 10 enpresei ematen zaizkien sariak ere banatu zituzten, eta Debabarrenekoa Eibarko Farmacook-Farmalurrek lortu zuen. Zorionak sari-dun bie!

Saihesbidearen Legarreko irteera itxita dago

>>> Legarreko bi egoitzen arteko lanengatik, auzo horretan saihesbideak duen irteera itxita dago. Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, saihesbidearen adar hori Donostiarako noranzkoan bakarrik erabili ahal izango da, eta 10 metrotik gorako ibilgailuek debekatuta izango dute pasatzea.



ANTONIO CABALLERO GARCIA

II. urteurrena: 2020/03/17

*"Betirako zaude gurekin.
Inoiz ez zaitugu ahaztuko"*

ETXEKOAK





“Eibar berdezkuratu!” erakusketa zabalduko dute gaur Topalekuan

>>> Gaurtik hasita eta martxoaren 27ra arte egongo da ikusgai “Eibar berdezkuratu!” izenburuko erakusketa Topalekuan. “No al paseo que nos entienda-Ekialdea Bai” auzo elkartekoek prestatu duten erakusketan, trenbide gaineko pasealekuarentzat auzokideen alternatiba azaldu nahi diote jende guztiari.

Elkartetik adierazi dutenez, “uste dugu Eibarrek hiri pasealeku eta bidegorri bat behar dituela, Azitain-Elgoibarkoarekin lotzeko. Ziur gaude alternatiba hori Barrena kaleetik pasatzen dela, zalantzarik gabe. Lotura natural posible bat izango litzateke, eta udalak

trenbidearen gainean egin nahi duena baino askoz ere egokiagoa. Gure ustez, Barrena kaleko pasealeku eta bidegorri horrek eragin positiboa izango luke Eibarko Ekialdeko herri- eta denda guztiengan; urte askotako utzikeriaren ondoren hobekuntzak behar baititu. Baina ez dugu nahi gure etxeetatik irteten behar izatea pasealekua trenbide gainetik egitearren, are gutxiago Barrena kaleetik egin daitekeenean”.

Erakusketa 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute astelehenetik barixakura eta 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara asteburuan.

Lore eta landare eskaintza zabala egongo da bihar goizean Urkizun

>>> Dekolore elkartearen eskutik, Udalarekin elkarlanean, XII. Eibarko Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka egongo da Urkizun bihar goizean. Hamabi parte-hartzaileek eskaintza zabala ekarriko dute azokara, beste batzuetan bezala: zuhaixkak, etxe barrurako zein kanporako landareak, usain-belarrak, kaktusak, haziak, sukaldarako belarrak, sendabelarrak, kosmetika naturala, landareekin egindako bitxiak, artisautza-lanak... Goizeko 10:00etatik 14:00etara zabalduko dute azoka eta, horrez



gain, haurrentzako bi tailer eskainiko dituzte: prentsaturako lorena (11:30ean) eta lndaketa-tailerra (12:30).

Buru-osasun arazoak azaltzeko hitzaldia egin du AGIFES elkarteak

>>> Orain dela egun batzuk AGIFES Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarteak (AGIFES) antolatutako hitzaldian buru-osasunaren inguruan aritu ziren berbetan, ikuspegi orokor batetik abiatuta.

Elkarteak Urkizuko dorretan duen lokalera bertaratu ziren 25 bat lagunei buru-osasuna zeri esaten zaion azaldu zieten eta, horrekin batera, familian edo inguruan norbaitek era horretako arazoren bat duen identikatze lagungarriak diren hainbat adierazle erakutsi zizkieten. Gainera, buru-osasun arazoren



bat dutenek familian duten eragina nolakoa den azaldu zuten elkarteko psikologoek.

Koronabirusari buruzko hitzaldia bihar Elgoibarren

>>> COVID-19aren kudeaketari buruzko iritzi kritikoa duten elgoibartar eta mendarotarrek osatzen duten Iratzargailuak “COVID eta sen ona” hitzaldia antolatu du biharko Elgoibarren, 12:00etan Maalako parkean. Jon Ander Etxebarria (Euskadiko Biologia Elkargoko dekan-ohia) eta Joseba Argin-



txona (Psikologia eta Filosofia irakaslea) arituko dira berbetan.

Kasinokoen urteko batzarra

>>> Casino Artista Eibarres elkarteak urteko batzarra egin du eta bertan banatu zituzten neguan jokaturako txapelketetako sariak: mus, tute, billar eta xake jokoetako txapeldunek

bapo afaldu zuten Toribio Etxebarria kaleko Kasinoan barixakuan, elkarteko zuzendaritzako kideekin batera. Elkarteak 360 bazkide inguru dauzka gaur egun.





Armeria Eskola Elkartek hilaren 25ean egingo du urteko batzarra

>>> Martxoaren 25ean egingo dute Armeria Eskola Elkarteko 2022ko Batzar Orokorra, "bazkideen urteroko topagunea ez ezik, bazkide izan ez arren gure proiektuarekin bat egin nahi duten guztien topagunea ere izango dena. Beraz, ekitaldia bazkide eta ez dauden enpresa, erakunde eta abarrei ere zuzenduta dago". Ekitaldian "El poder positivo del cambio" hitzaldia emango du Mago Morenek. Ondoren, Unai Anduezak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoen zuzendariak itxiko du ekitaldia eta,

amaitzeko, networking-erakone bat egingo da.

Era berean, eskolako ikasle izan direnentzat berriz elkartzeko eguna ere izango da. Networkingean, ikasketak 1975ean, 1976an eta 1977an amaitu zituztenei intsigniak emango zaizkie.

Batzarra "Elkartearen proiektuak ezagutarazteko eta ideiak jasotzeko" elkargune garrantzitsua izango da. Izena emateko 943 20 32 44 / 633 90 93 88 telefonoetara deitu daiteke edota elkartea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi.

Arragueta 17. eta 19. zenbakiak jendez hustu dituzte

>>> Ertzaintzak Arragueta kaleko 17. eta 19. zenbakietan bizitzen egon direnak etxetik aterarazi zituen atzo goizean. Eibarko Udaltzaingoa esandakoari jarraituz, etxeak hondamendi egoeran daude eta arriskutsua da bertan bizitzea. Horregatik joan ziren bertan bizi zirenak etxetatik ateratzera.

Izan ere, etxeek hutsik behar lukete; baina, atea apurtuta zegoela aprobetxatuz, jendea sartu da bizitzera.

Alkatearen berbetan, "eraitsi aurreko jarduketak atzeratu egin dira etxebizitza batzuk

'okupatuta' zeudelako, jabeak ez ziren hainbatengatik". Hori dela eta, epaitegira jo behar izan dute etxebizitza horietan zeudenak bertatik atera ahal izateko. Hala eta guztiz ere, epaitegiari dagokion baimena eskatu ondoren, hustea baketsua izan dela adierazi du alkateak.

Bestalde, Alkatetzatik atzo bertan jakinarazi zuten, aipatutako bi eraikinak eraisteko tramitazioa hasita dago. Horrekin batera, kale horretako 16. zenbakia ere bota ahal izateko, jabeekin ados ipintzeko ahaleginetan dabiltzala eman dute aditzera.



**ITZALI ARGIA NATURAREN ALDE
ETA EGIZU BAT
PLANETAREN
ORDUAREN
ERRONKAREKIN!**

martxoak

26

**LARUNBATA
20:30 - 21:30**

EIBARKO UDALAK AURTEN ERE BAT EGINGO DU "PLANETAREN ORDUA" EKIMENAREKIN

Ordubete amatatu egingo dira Udaletxea argizatzen duten Untzagako fokuak, erlojuko eta arkupeetako argiak, eta ibarkurutzeko iturriko argiak klima-aldaketaren kontrako borrokaren keinu sinboliko gisa.



EIBARKO UDALA

Parte hartu WWFren ekimenean #KMPorEiPlaneta horadelplaneta.es



Eibarko Baso Biziak elkarteak inguruko basoak ezagutzeko irteera antolatu zuen urrian. EIBARKO BASO BIZIAK

<<< EIBARKO BASO BIZIAK • Eibarko Basoen Babeserako Erakundea >>>

“Bazkide kopurua bikoiztu nahiko genuke, hau da, 200 kideko langa gainditzea”

Eibarko Baso Biziak elkarteak bazkide-kanpaina jarri du martxan, jarraitzaileak bikoizteko asmoz. Eibar inguruko basoak kontserbatzeko eta berreskuratzeko helburua du taldeak eta, horretarako, ezinbestekoa izango da herritarren ekarpena. Izena emateko nahikoa da eskuineko orrian agertzen den QR kodea eskaneatzea eta, informazio gehiago behar izanez gero, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Zertan datza abiatu duzun kanpaina? Zeintzuk dira kanpainaren helburuak?

Bazkide berriak lortzeko ekimena jarri dugu abian eta, horren bitartez, orain dugun bazkide-kopurua bikoiztu nahiko genuke. Hau da, 200 kideko langa gainditzea.

Zer moduzko erantzuna jaso duzue jendearen partetik?

Barixakuan hasi genuen kanpaina eta oraindik goiz da emaitzei buruz berba egiteko, baina momentuz ezin gara kexatu.

Asteburuan Untzagan postua jarri zenuten kanpainari buruzko informazioa eman eta bazkide berriak lortzeko. Antzeko ekintza gehiago egingo dituzue?

Bai, martxoan zehar, hiru as-

teburutan, leku desberdinetan egongo gara informazioa ematen eta bazkide-eskariak jasotzen. Barixakuetan Urkizun egongo gara, zapatuetan Untzagan eta Zuhaitz Egunean, hilaren 20an, Amañan jarriko ditugu informazio-guneak.

Diru-ekarpena hiru modutan egiteko aukera ematen duzue: urtean 60 euro ema-

tea, 18 urtetik beherakoek 5 euro edo, bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera, ahal dena ematea, aipatutako zifren gaitetik edo behetik. Zer egingo duzue jasotako diruarekin? Zein ekintza egiteko asmoa duzue?

Printzipioz, bazkideko 60 euroko kuota ordaintzen da urtean. Bestalde, familia asko gerturatu zaizkigunez kide guztiak

bazkide izateko asmoarekin, familiei kuota nabarmen murrizten diegu. Hortaz gain, ongi etorriak dira norberak ahal duena emateko prest dotozen bazkideak, errealitate ekonomikoa ez baita guztiontzat berdina.

Eibarko Baso Biziak taldearen helburuak gure inguruko lurretan dauden bertako basoak kontserbatzea eta berreskuratzea da, baita ekosistema horiei lotzen zaien biodibertsitateari ere eustea: bertako basoa sustatuz, landare eta animaliei babeslekua eskainiz eta erreka osasuntsu edukiz. Hori guztia, gure bizi-kalitatea hobetzeko eta Eibar bizigarriagoaeraikitze helburuarekin.

Horretarako, hainbat ekimen bultzatzen ditugu: erreka eta inguruak garbitzeko ekimenak egin eta sustatu, landaketak egin, naturarekin zerikusia duten mendi-irteera didaktikoak antolatu, hitzaldiak antolatu, material pedagogikoa sortu, lurrak erosi, kustiadiak bultzatu, eta abar.

Elkarteak bi urte daramatza martxan. Nolako ibilbidea egin duzue orain arte? Pozik zaudete egindakoarekin? Zer geratu zaizue egin barik edo zer ezin izan duzue egin?

Egia esan, ez gara gelditu ere egin. Lan asko egin dugu. Hasiera batean antolatze eta sendotze aldera jarri genituen indarrak. Taldea finkatu genuenean, helburu eta ekimen zehatz batzuk ezarri eta hari ekin genion. Egin dugun guztiarekin oso pozik gaude, nahiz eta naturaren egoera ikusita orain arte egindakoa nahikoa ez den. Errealistak izan behar dugu eta pausoz pauso joatea da zuzenena. Gure inguruan asko dago hobetzeko, baina lehentasunak markatzea garrantzitsua da.

Herriak nola erantzun die zuen ekimenei? Eta erakundeek?

Oso harrera ona eduki dugu, benetan eskertzekoa da jaso dugun erantzuna. Antolatu ditugun ekimenetara jende asko

“Askok esaten digute bazela ordua Eibarren naturaren aldeko lan talde bat egoteko. Badago naturarekiko kontzientzia gure herrian”



Goiko argazkian, Eibarko Baso Biziak taldearen irteera bat. Behekoan, zapatuan Untzagan jarri zuten postua. EIBARKO BASO BIZIAK

batu zaigu, askok eta askok esaten digute bazela ordua Eibarren naturaren aldeko lan talde bat egoteko. Badago naturarekiko kontzientzia gure herrian. Bestalde, erakundeekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu, baliabide guztiak gutxi direlako ingurumenaren hobekuntzari buruz dihardugunean.

Erakundeek ere lehentasunak markatzea ulertzen dugu, baina harremanetan jarri garen ondo erantzun dute. Nork ez du nahi gure mendietan baso biziak eta erreketan arrainak ikustea?

Gaur egun nola dago egituratuta elkartea? Lantaldeak daude? Zenbat lagunek hartzen dute parte erabakietan?

Eibarko Baso Biziak taldean 25 lagun gaude gutxi-gorabehera, bost taldetan banatuta: komunikazioa, harremanak, ekonomia, koordinazioa eta pedagogia.

Martxoaren 20an Zuhaitz Eguna egingo da Eibarren. Nolako ekintzak egingo dituzue?

Udalak, Klub Deportivoak eta guk elkarlanean antolatzen dugun ekimen honetan bertako zuhaitzen landaketa egingo da Lindarin.

Hilaren 26an, bestetik, mendi-irteera kulturala egingo da Korrika Kulturalaren barruan. Nolako ekintza izango da?

Antolatu den ibilaldian, Urko-kobazuloa bisitatuko dugu eta Eibarko Baso Bizikoek hitzaldi laburra emango dugu inguruan ikusten den basogintzari buruz.

Bazkide egiteko





Euskaraz erostearen abantailak

Aurreko urteetako arrakastari jarraituz, Eibarko Dendarien Elkarteak Erosketa-Ibilbidea kanpaina jarri du martxan berriz ere, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Eibarko Udalarekin lankidetzan. Horrela, jendea Eibarko establezimenduetan erostera animatzeaz gain, erosketa horietan bezeroek euskara erabiltzea ere sustatu nahi dute.

Erosketa-Ibilbidea egitasmoaren bultzatzaileek argi dute: Eibarren bertan kontsumitzeko erraztasunak ematea eta bertako hizkuntza erabiltzeko aukera ematea bezeroei kalitatea eskaintzea da. Horregatik, herrian erosketak egiteko orduan euskararen erabilerrari "bultzadaxoa ematea" da asmoa aurtengo edizioan.

Kanpaina martxoaren 21etik apirilaren 3ra egingo da eta, orokorrean, iazko dinamika jarraituko da, berritasun bat gehituz. Beraz, iaz egin bezala, Eibarko saltokiren batean bezeroak lehen erosketa egiten duenean kanpainako sobrea jasoko du eta barruan hamar laukiko kartilla aurkituko du.

Kartillak betetzeko, ostera, honakoa egin behar izango dute: bezeroak, kanpainak irauten duen bitartean, hamar saltoki desberdinetan erosketak egin behar izango ditu (egindako erosketen kopurua gutxienez 200 eurokoa izan beharko da guztira), saltoki bakoitzak kartillako lauki bat zigitatuko du eta erosleak gu-

tun-azalean gorde behar izango duen tiketa jasoko du.

Berritasunak edizio honetan
Aipatutako dinamika ez da berria, iaz ere berdin jokatu zelako, baina aurten berritasun bat gehitu nahi izan diote egitasmoari: erosketak egiteko orduan euskara erabiltzen duten erosleei (hau da, euskaraz agurtzea, nahi dutena euskaraz eskatzea...) 'Euskeraz Primeran!' pegatina jarriko zaie laukitxoan eta horren gainean erosketa egin den establezimenduaren zigilua.

Berritasun horrekin herriko establezimenduetan erosteaz gain bezeroek euskara gehiago erabiltzea bilatzen da. Eta zer gertatzen da dendariak euskaraz egiten ez badaki? Ez dago arazorik! Bezeroak euskaraz agurtzen badu eta dendariak gazteleraz erantzuten badio, dendariak 'Euskaraz Primeran!' pegatina jarriko dio euskaraz hitz egiteagatik. Eta alderantziz, erosleak euskaraz ondo egiten ez badu ere, agurra edo ahal duena euskaraz egitea nahikoa izango da.


Erosleek 50 euro, 60 euro eta 70 euroko txartel sariak eskuratu ahal izango dituzte

Erosketak eginez euskara erabili ahala, bezeroak kartilla zigiluekin betetzen joango dira eta, ondoren, Eibarko Merkataritza Elkartearekin jarri beharko dira harremanetan. Izan ere, elkarteak kartilla berrikusi eta balioztatu beharko du, eta Eibar Oparitu txartela emango dio bezeroari, 50 eurokoa. Hamar zigilu lortzeaz gain, gutxienez 'Euskaraz Primeran!' ekineneko sei pegatina baldin baditu, 60 euroko Eibar Oparitu txartela jasoko du bezeroak eta, ostera, hamar pegatina baditu, txartela 70 eurokoa izango da.

Denda jakin batzuetan

Eibar Oparitu txartelak Eibar Oparitu kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan gastatzeko izango dira, maiatzaren 15a baino lehenago. Esan beharra dago Eibar Oparitu txartelak kartilla hamar zigilurekin betetzen duten lehen 140 bezeroentzat izango direla.

Hauek dira Erosketa-Ibilbidea egitasmoan parte hartuko duten establezimenduak: Adarabar, Afede, Azpiri autozerbitzua, Alai estetika-naturopatia, Alberto bitxidenda, Albizu harategia, Altair ileapaindegia, Antxon gozotegia, Arane karrozeria, Arregi Dominguez (Bidebarrieta), Arregi Dominguez (Ego Gain), Artamendi harategia, Askasibar, Atelier 11, Azitain gasolindegia, Baglietto pinturak-deko, Bambi zapata-denda, Bed's, Beep informatika, Beittu audioptika, Benicoba elektrotresnak, Blenda ileapaindegia, Burbujas y más, Capi lurrindegia, Casamania, Casar Sistemas, Castaño farmazia, Castaño ileapaindegia, Cedry moda,



Erosketak egiterakoan euskara erabiliz gero, erosleek Euskeraz Primeran! pegatina bat lortuko dute.



Erosketak Eibarren egitea bultzatzeaz gain, erosketak egiteko orduan euskara erabiltzea sustatu nahi da kanpainarekin

Coloniales A. Gonzalez, Comercial Zabala, Corral jostundegia, Dandara, Designed by Nona, Dibutec kopiadenda, Dirdai bitxi-denda, Ditare, Doroti, Edurne ileapaindegia, Eguren elektrotresnak, Eibar gasolindegia, Eibar gortinak-pertsianak, Eibarrooms auto check-in, Electro Agui-

rre, Elena Iraundegi Farmazia, Eleventh Moon, Eskulan, Exclusivas Javi, Farmacook, Farmalur, Galarreta zapata-denda, Garajes Garcia, General Optica, Gigil design, Goiara (Calbeton), Goiara (Urkizu), Goritz, Gozo-gozo txutxes, Gratzina, Guby Birjiñape, Guby Zuloagas, Harixan, Hel-

met House, Hop Skate Shop, I love 10, Ibarkurutze fruta-denda, Ibone estetika, Idoia Morgado farmazia, Igmar audiozentroa, Igmar Federopticos, Ikusi Eibar, Infosec, Irei estetika, Irritsa, Itxesi belar-denda, Izadi loradenda, Izane dekorazioa, Jauregui, Jeronimo, Juli janaridenda, Kantoi

gasolindegia, Kiñu burdindegia, Klaus, Kopina, Laguinda, Lahidalga zapata-denda, Laktet estetika-masajea, Lakuesta optika, Leder, Los Chicos, Lua, Marais, Marsi loradenda, Moapics, Mugika harategia, Multioplicas, Natural Optics Plazaola, Neure dekorazioa, No comment, Oberena harategia, Oinberri zapata-denda, Oskarbi zapata-denda, Otaola deskantsu denda, Otegui harategia, Parriaundi okindegia, Pissa zapata-denda, Retegi zapata-denda, Salaberria bitxi-denda, San Andres gozotegia, Soul ileapaindegia, Stylo ileapaindegia, Tribeka zapata-denda, Trimmer, Ttiki mertzeria, Twins, Txaltxa Zelai parking, Txukuna, Umea, Urdanibia, Vieco moda eta etxea, Villalba autozerbitzua, Vintage ileapaindegia, Xare, Yaolagoitia liburu-denda, Zapopore izozki-denda eta Zentral Optika. ■

<<< AITOR MARTIN • Goxoa.eus proiektua >>>

“Gure zerbitzua bertakoa, bidezkoa, eroso eta jasangarria da”

Goxoa.eus lehen sektorearen egungo errealitateari eta herritarren kontsumo-ohiturei erantzuteko ekimena da. Web-orrian Euskal Herriko 40 ekoizle hartzen dute parte eta 175 elikagai eskaintzen dituzte. Eibarren ere banatzen hasi dira. Aitor Martin eibartarra proiektuaren sustatzaileetako bat da eta xehetasun guztiak kontatu dizkigu.

Zein da zuen filosofia eta zein balio bultzatu nahi dituzue?

Goxoa.eus azoka digital ireki bat da, 24 ordukoa, prezio lehiakorrek eta etxez etxeko banaketarekin. Gertuko eta sasoiko elikagaiekin dieta osasungarri bat eskaintzen dugu web-orriaren bitartez: barazkiak eta fruitak, esnekiak, lekaleak, pastak, kontserbak, haragia, arrautzak, artisau-ogia, gaztak, edariak... Elikagai gehienak ekologikoak izan daitezela saiatzeko gara, baina modu konbentzionalean ekoiztutako elikagaiak ere eskaintzen ditugu. Horrez gain, plater landuen, okela ekologikoaren eta etxeko postreen lerro propioa eskaintzen dugu, trazabilitate osoarekin, bezeroek zehazki jakin dezaten zein osagairekin dauden prestatuta eta nondik datozen osagai horiek.

Bitartekariak zarete ekoizle eta kontsumitzaileen artean.

Bidezko salmenta-kanal bat sortzen dugu gure ekoizleentzat; haiek ahalduz eta haien lana ikusaraztea ezinbestekoa da guretzat. Gertuko harremana eraikitzen dugu ekoizle eta familia bakoitzarekin. Laboreak bisitatzen ditugu, ekoizleekin solasean aritzen gara, produktuen banaketa guk geuk egiten dugu, familiak ezagututa.

Eta jasangarritasunak pisu handia dauka zeuen proiektuan...

Jasangarritasuna egunero-egunero lantzen dugun arloa

da: hurbileko bilketa-guneak, etxez etxeko banaketaren alternatiba gisa; etxeko platerak, patata-zuntzeko ontzi konpostagarrietan; oihalezko poltsa eta beirazko ontziak bererabiltzeko sistema...

Zeintzuk zaudete proiektuaren atzean? Eta nola jaiotzen zen ideia?

Mondragon Unibertsitateko LEINN karrerako hiru kide gara: Mikel (Urretxu), Gorka (Zarautz) eta ni; eta gure bazkidea den Diametro 200ko Federico Pacha. Proiektua orain dela hiru urte hasi zen San Frantziskora egin genuen ikasketa-bidaia ostean. Hango landa-eremuetako produktuak etxetara eramaten zituzten hainbat elkarte eta proiektu ezagutzeko aukera izan genuen. Berrogeialdian forma ematea eta Gipuzkoan garatzen hastea erabaki genuen.

Zenbat ekoizlerekin ari zarete lanean? Nola egiten duzue eurekin koordinatzeko?

Oraintxe bertan, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 40 ekoizle baino gehiagoren 175 elikagai inguru ditugu, eta horietatik 27 Gipuzkoakoak dira. Gure asmoa da elikagai gehiago izatea eta gero eta ekoizle gehiagorekin lan egitea; beraz, irakurleek norbait ezagutzen badute edo proiektuan parte hartu nahi badute, arazorik gabe jar daitezke gurekin harremanetan.



Nolako erantzuna izan du proiektuak? Zeintzuk dira zuen asmoak eta erronkak?

Nekazaritzan bezala, egunez egun lan egitea gustatzen zaigu. Baina proiektuaren eragin positiboaz konbentziturik gaudenez, gure helburua ahalik eta familia, jatetxe eta saltoki gehienei laguntzea da. Janaria gai delikatua da, eta badakigu jendeari hasieran kosta egiten zaiola konfiantza izatea eta ohi-turak aldatzea. Horregatik gustatzen zaigu eskaerak banan-banan maitasunez prestatzea eta zorrotzak izatea. Webgunean beste atal bat garatzen ari gara, langileei eguneko platerak eta asteko erosketak eskaini nahi dizkieten enpresentzat. Eta horretaz gain, jatetxeekin ere hasi gara lanean, adibidez, Eibarko Baratze jatetxearekin. Oso pozik gaude gure ikuspegi eta balio bera duten pertsonekin lan egin ahal izateagatik.

Nola, noiz eta non egin daitezke erosketak?

Gipuzkoako udalerrri guztietako familiei banatzen ari gara astelehen, martiten, eguen eta barixakuero, goizez zein arratsalde. Webgunearen bidez, WhatsApp bidez edo telefonoz egin daitezke eskaerak, pertsonari erosoan egiten zaion moduan. Gainera, gu geu gara banaketa egiten dugunak hoztutako gure furgoneta txikiarekin. Horrek aukera ematen digu gure bezeroekin harreman zuzena izateko, eta hori asko gustatzen zaigu. Gure proiektuak, beste batzuek ez bezala, ez du kuota kobratzen eta ekoizle beren prezioak ezartzeko askatasuna ematen die. Eta, hala ere, publikoarentzako salmenta-prezioak lehiakorrik izatea lortu dugu, kontuan hartuta tokiko ekoizpeneko elikagaiez ari garela, ekoizleekiko bidezko banaketa eta tratua bidez.



Saharako umeak jasotzeko gogoz

Aurten bai! Bi urtez bertan behera laga ondoren, aurtengo udan berriz ekingo zaio Oporrak Bakean programari. Horrela, 10 eta 12 urte arteko Saharako umeak Euskal Herrira etorri ahal izango dira uda pasatzera eta, bi hilabeterako bada ere, errefuxiatu-esparruetan bizi duten egoera latza albo batera lagatzera. Horretarako, Oporrak Bakean ekimena ume hauek jasoko dituzten familien bila dabil.

Azkeneko bi urteak bereziki gogorrak izan dira Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetan bizi diren ume sahararrentzat. Munduko deserturik lehorrenaren erdian bizirautea behartuta, arazo latzak jasan behar izaten dituzte: “Janari eta ur eskasia, udan 55°-tik gorako tenperaturak, medikuen errebisio falta...”. Eta hori gutxi balitz, COVID-19aren pandemia eta gerra gehitu zaizkie ohiko arazoei.

Oporrak Bakean proiektu-koen berbetan, pandemiak “bortitz” jo ditu errefuxiatuen esparruak. “Kanpo laguntzatik bizirautean duen herri batentzat mugak itxita izateak ondorio larriak ekarri dizkio, gaixotasun berak sortutako arazoez gain, alde berean beste hainbat eragozpen izan dituelako”, diote.

Pandemiaz gain, gerraren arazoari egin behar izan diote aurre. “Pandemia honi komunikabideek isilpean gordetzen duten gerra gehitu behar zaio.

2020ko azaroaren 13an Marokok su-etenari amaiera eman zion eta harrezkero saharar soldaduek ‘lotsaren harresia’ babesten dira. Ia urte eta erdi iraun duen gerra honek heriotzak ere ekarri ditu. Soldadu hauek ‘Oporrak Bakean’ programan parte hartzen duten haurren aita, anai edo senideak dira, baina baita orain dela urte batzuk gure herrietan harreran egondako haurrak ere. Hala ere, gerra honek ez du interes mediatikorik”, diote elkartetik.

Umeak jasotzeko baldintzak
Saharako umeak jasotzeko izena emateko epea martxoaren 27ra arte egongo da zabalik eta, oporrrakbakean.eus webgunearen edo Eibar-Sahara elkartearen bitartez hartu ahal izango da parte. Eibarko elkartek Facebooken du orria eta, bertan idazteaz gain, edurneu3@hotmail.com helbidera ere idatzi daiteke.

Izena emateko orduan lau baldintza bete behar dira. Ba-

Martxoaren 27ra arte dago zabalik udan Saharako umeak jasotzeko izena emateko epea



tetik, EAeko udalerrri batean bizitzea. Bigarrenik, denbora izatea. “Lehendabiziko bi asteak denon egokitzapenerako tartea dira. Beraz, oso garrantzitsua da familiak haur sahararrek ahalik eta denbora gehien pasatzea sasoi horretan”, diote elkartetik. Hirugarrenik, etxean espazioa edukitzea. Eta laugarrenik, gogoia. “Bi hilabetetan zehar familian bat gehiago izateko gogoia, ahazteazina izango den uda bat pasatzeko gogoia, kultura berri bat ezagutzeko gogoia, saharar herria laguntzeko gogoia...”, argitzen dute.

Animatuz gero, familiek formazio-saioak jasotzeko aukera izango dute, programan lehen aldiz parte hartzen dutenen zalantzak argitzeko. Gainera, proiektuaren webgunean ohiko galderak erantzuten dira eta oporrrakbakean@gmail.com helbidera idatzi daiteke informazio gehiago lortzeko. ■



Tipi-tapa tipi-tapa, badator 22. KORRIKA!

AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoa zeharkatuko du 22. Korrikak martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean. Euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Amurrio eta Donostia lotuko ditu, euskara hitzetik ekintzara eramateko.

Hain zuzen ere, edizio honetarako aukeratu duten goiburua "HITZEKIN" da, "euskara HITZetik EKINTzetara eramateko unea delako". 11 egun izango dira, eta 2.500 kilometro inguru burutu ostean, Gipuzkoako hiriburuan bertan jakingo da Korrikaren sekreturik handienetakoa: lekuko barruan milaka kilometro egin dituen mezua.

Bi aste barru, apirilaren 1ean ailegatuko da 22. Korrika Eibarrera. Pandemia dela eta, urtebete atzerapenarekin egingo da edizio hau eta, horregatik, jendea Korrikan parte hartzeko irrikitan dagoela esan digute Jone Olaizola Eibarko AEK euskaltegiko zuzendariak eta Xabi Zubeldia Korrika batzordeko arduradunak. Aurretik, baina, lasterketa egunerako beroketa-ariketa gisa, Korrika Kulturalaren barruan antolatutako egitarau biribila daukagu.

Aurreko astean hasi zen Korrika Kulturala Eibarren, Idoia abeslariak "Ilun eta abar" diskoa aurkezteko Coliseo antzokian eman zuen kontzertuarekin. Domekan, berriz, beste kontzertu bat izango dugu bertan, oraingo honetan Ruper Ordorikaren, Mugalaris bandaren eta Bernardo Atxagaren eskutik. Diskoa kaleratu eta 40 urte ondoren, Oñatiko abeslariak "Hautsi da anphora" lana ekarriko du berriz ere jendaurrera eta abestien letrak landu zituen Atxagak zenbait

"Azken urteak gogorak izan dira eta orain kalera irten eta euskarak bere presentzia berreskuratzeke garaia da"

pasarte kontatuko ditu. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera guztiak saldu dituzte.

Hurrengo egunean, hilaren 21ean, Udalarekin eta Eibarko Antzerki Jardunaldiekin elkarlanean antolatu duten emanaldian, "Semea pixka bat motelago dabil soilik" antzezlanaren taularatuko du Tanttaka taldeak, 19:00etan, Coliseoan. Sarrerak 12 euro balio du (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).

Martxoaren 26rako Urkoko koba bisitatzeraz joste-

ko mendi-irteera kulturala antolatu dute, Eibarko Klub Deportiboarekin eta Eibarko Baso Biziak taldearekin batera. AEK-ko ordezkarien berbetan, "09:30ean hasiko da irteera, Untzagan eta, bestela, 10:00etan Mañe jatetxeko aparkalekuan. Mañe jatetxeko aparkalekutik aterako gara oinez eta Urkoko kobara ibilaldia egingo dugu. Klub Deportiboko Espeleologia taldekoek inguruari eta kobazuloari buruzko azalpenak emango dizkigute. Era berean, Baso Biziak taldekoek ere inguruari buruzko azalpenak emango dituzte. Behin kobara iritsita, nahi duenak barrura sartzeko aukera edukiko du. Ibilbidearen ostean, 12:30 inguruan, Mañe jatetxean hamaiketako egongo da". Irteeran parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea eta, horretarako, eibar@aek.eus helbidera idatzi edo 943 201379 telefono zenbakira deitu behar da, martxoaren 23a baino lehen.

Umorezko bakarrizketak

Hilaren amaierarako umorezko bakarrizketak ekarriko dituzte. Martxoaren 30ean "Barredromoa" eskainiko dute Mirari Martiarenak (Komunikazioan aditua), Olatz Perez de Viñasprek (Informatikaria), Ana Galarragak (Elhuyarreko kidea), Leire Narbaizak (Euskara irakaslea), Oier Araolazak (dantzan.eus-eko kidea), Gorka Guenagak (Uni Eibar-Ermuako irakaslea), Koldo Garcia (genetista) eta Josu Lopez Gazpiok (genetista). Idoia Torregarai UEUko komunikazio-arduradunak aurkeztuko du Markeskua jauregian 18:00etan hasiko den saioa. Sarrera doan da, baina aforoa dela eta, aurretik izena eman beharra dago, komunikazioa@ueu.eus helbidean.

Hilaren 31n, berriz, "40 urte eta aldapan behera niek!" izeneko saioa eramango du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Coliseora, 19:00etan, Ion Martinez Esnaola "Txiki" aktorearen es-

BERTSO AFARIA

korrika Kulturala 2022

APIRILAK 7, 21:00etan Kultur tabernan



22. KORRIKA HITZERIN

TRABEILAN BISTAN SALBU
28 martxo, 17:00etan (Guztekin, gaiturruna)

Aukeratuak



kutik. Umorezko bakarrizketarako abiapuntua 40 urteak dira: "Bizitzan ez dakizu nola, baina denbora aurrera doa, eta nahi ala nahi ez, 40 urteak hor zeuden eta iritsi dira. Zuk orain arte bezala bizitzen jarraitu nahi duzu, baina gezurpotolo bat dela konturatzen hasten zara, 40 urteak betetzen dituzun lehen egunetik aldatzen hasten zarelako. Fase berri batean sartu zara, 40 urte

madarikatuak!". Saioa dohainik izango da, baina aldeaz aurretik gonbidapena eskuratu beharra dago.

Egitaraua ixteko, bertso-afaria

Eta apirilaren 1ean, Korrika herritik pasatzen den egun berean, bertso-afaria egongo da Arrate Kultur Elkartearen, Unai Iturriaga Zugaza-Artaza eta Maider Arregi Markuleta bertsoariekin. Gai-jartzailea Jon Mikel Mujika Irazu izango da. Euskaltegiko zuzendariaren berbetan, "normalean Korrika Kulturalako jarduerak lasterketa egunaren aurretik izaten badira ere, egunean bertan izango den bertso-afaria egitarauan sartzeta erabaki dugu".

Arrate Kultur Elkarteak eta Hankamotzak bertso-eskolak antolatu duten saioa 21:00etan hasiko da, Kultu tabernan. Bertso-afarirako txartelak 20 euro balio du (17 euro bazkide eta prekarizatuentzat) eta Kultu tabernan bertan ipini dituzte salgai. ■

Apirilaren 1ean, barixakuan, pasatuko da 22. Korrika Eibartik, goizeko 09:30ak aldera. Bezperan Amurriotik abiatu den lasterketa Ermutik sartuko da gurean eta beste batzuetan egindako ibilbidea egingo du oraingoan ere: Otaola hiribidetik Eroskiko aldapa igo eta Ipuruara joango dira korrikalariak; handik Ubitxako bihurtun jarraituko du aldapan behera, Untzagaraino ailegatu eta, Calbeton zeharkatu ondoren, Bidebarrietatik Julian Etxeberriara joateko; Toribio Etxebarrietatik Untzagaraino joango da, han buelta eman eta, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Karmen eta Barrena kaleak zeharkatu eta gero, Maltzagan Elgoibarrerako bidea hartuko du.



Egun gutxi batzuk baino ez dira falta 22. Korrika Amurriotik abiatzeko eta antolatzaileak lan eta lan dabilta, ordurako dena prest izateko.



Korrika Txikia martxoaren 31n izango da:

Bestalde, herriko ikastetxeetako haurren parte-hartzearekin ospatu ohi den Korrika Txikia egingo da, Korrika "ofizialaren" bezperan, hau da, martxoaren 31n. Beste batzuetan bezala, herriaren erdialdeko kaleetatik beteko du ibilbidea, 15:15ak aldera hasi eta Untzagan amaitzeko. Bertan, Arno DJ-ren musikarekin agurtuko dute euskararen aldeko jaiak.

- Eibarren, **45 talde inguruk** hartuko du parte 22. Korrikan. Horietako bakoitzak aukeratu duen ordezkariaren eskutik pasatuko da lekukoa, batetik bestera, Eibarren ibilbide osoa bete arte.
- **Korrikaren petoak** (5 euro) eta **txapak** (euro bat) daude salgai **AEK euskaltegian**.



Arantza Mata

Arantza Mata

Euskara gaitasuna eta irakasleria

Urteak igaro dira, baina gaur izango balitz bezala gogoratzen dut Don Luis. Garai bateko eskola nazionaletatik D ereduiko ikastetxera pasatako irakaslea zen: gaztelanian trebea, aditua, baina euskara batuan aritzeko zailtasunak zituen. Sarritan ikasleei gaztelaniaz zuzentzen zitzaiona; baita irakasleriari ere. Beti egunkaria esku artean zerabilen, baina inoiz ez Berria. Gizon berezia eta zorrotza zen, ezberdina akaso, baina ikasleek maite zuten Don Luis.

Garaiak garai, oraindik ere Don Luis bezalako hainbat irakasle daude euskarari dagokionez; hainbat irakasle ditugu irakaskuntzan euskara maila baxuarekin: gure seme-alaben ereduak dira, baina gaztelaniaz erosoago aritzen dira euskaraz baino. Azkenaldian, sarri entzun izan dugu ikasleek maila baxua ematen dutela hizkuntza-kompetentzian, baina irakasleok zein maila

“Irakasleok aurrerapauso bat eman beharra daukagu: euskara batuan trebatzea”

daukagun hausnartu al dugu? Eskerrak ebaluazio-diagnostikoko azterketak guk geuk ez ditugula egiten, sorpresa bat baino gehiago egongo litzateke eta.

Euskararen kompetente izateko irmo eutsi behar diogu, guk, euskaldunok, geureari. Hala ere, aurrerapauso bat eman beharra daukagu: euskara batuan trebatzea. Idatzizkoan, ahozko-tasunean eta irakurketan, ez da nolana hiko erronka irakasleen euskarazko gaitasuna hobetzea. Horretaz gain, argi izan behar dugu ere lehen bete-betean sinesten zela eskolan euskalduneko zirela haur eta gazteak; izan ere, eskolak euskaraz nolabait dakiten neska-mutilak ugaritu ditu, eta ez da lan makala; baina eskola ez da euskaltegia. Haratago joanez, eta kontuan hartuta zer hizkuntza indartsuak ditugun gure inguruan, euskaldunok ahaztu behar ez genukeen esaldi hau datorkit burura: “Bakearen aitzakiarekin ezin liteke injustizia onartu”. Edo, bestela esanda, euskara biziberritzeko lanean ere, “Gure Esku Dago”. Ez ala?



Ekhi Belar

Ekhi Belar

Elkar ezagutu

Orain dela hilabete Amets Arzallus Armeria Eskolan egon zen ‘Miñan’ liburuaren inguruko solasaldian. Liburuan Ibrahima Balderen historia kontatzen du, baina Afrikatik datozen milaka migratzaileen historia izan daiteke.

Bertsolariaren gogoetak entzutea garrantzitsua iruditzen zait (aldizkari honen 1208. zenbakian dituzue irakurgai), zeharkatzen gaituzten bizitzak direlako. Batzuk gure artean gelditzen dira, beste batzuek bidea egiten jarraitzen dute, hara eta hona dabil-

tzan itzalak bezala. Baina ez, ez dira itzalak, hezur eta haragizkoak dira, eta denek dute kontatzea merezi duen historia.

Azken urteotan Eibartik milaka kilometrotara jaiotako eibartarrak elkarrizketatzeko zortea izan dut. Beno, elkarrizketatu baino, ezagutzeko, zenbait kasutan kazetaritzaren mugak finak direlako eta dena ez delako artikulu bat idaztera mugatzen.

Istoriario ederrak kontatu dizkirate, dramatikoak beste batzuk. Batzuekin barre egin dut, hunkitu egin naiz hainbatekin. Guztiekin ikasi dut. Kultura, ohitura, hizkuntza eta sinesmen ezezagunen berri izan dut, eta mundua ulertzeko mila tresna eman dizkirate.

Saharan jaiotako Mohamedekin egin nuen berba lehenik, euskaraz gainera. Lau urte eta gero, irribartsu eta jator agurtzen nau oraindik. Herriko lorategiak zaintzen ibiltzen den Adama ere berdin, baita Ghita ere, eta Carlos, eta Neama, eta abar luze bat.

Milaka kilometro egin dituzte Eibarrera iristeko eta hemen aurkitu dute bizilekua. Beste batzuek kilometro gutxiago egin dituzte; Extremadura, Galizia edo Andaluziatik etorri dira, eta Mohamed, Adama, zu eta ni bezala, eibartarrak dira, beste etiketak gabe.

Eguaztenean beste bertsolari bat izan genuen Armeria Eskolan, Jon Maia. Ama Extremadurakoa eta aita Zamorakoa dituurretuarak, eta migrazioaren inguruan asko jardun du azken urteotan. Bere azken lanei begiratzea besterik ez dago gaiaren inguruan egin dituen gogoetak jakiteko (gomentagarriak oso!), baina eguaztenean eman zuen gako bat azpimarratu besterik ez dut nahi: elkar ezagutzaren garrantzia.

“Azken urteotan Eibartik milaka kilometrotara jaiotako eibartarrak elkarrizketatzeko zortea izan dut. Beno, elkarrizketatu baino, ezagutzeko”



Globalizazioaren aurrean euskarak jauzi handia eman behar du

Martxoaren 16an, herenegun, izan zen ...eta kitto! Euskara Elkartek urtero antolatzen duen **Euskararen Transmisioa eta Sozializazioa izeneko Mintegia**. Aurtengoa hamabigarren edizioa izan da eta Armeria Eskolan egin da lehen aldiz. 40 lagun bildu ziren areto nagusian eta 62 lagunek jarraitu zuten ekitaldia streaming bidez 09:00etatik 14:00etara bitartean.

Badira 12 urte ...eta kitto! Euskara Elkartek mintegia antolatzen duela eta harrera ezinhobea izan du urtero. Sasoi berrietara egokitzen joan da mintegia eta, baliabide teknikoek hala eskatuta, lekuz aldatzen joan da. Antolatzailuek eskerrak eman nahi dizkiete bertara hurbildu zein streaming bidez parte hartu zutenei; Eibarren AKEBAI, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari ekitaldia babesteagatik; Armeria Eskolako lantaldeari eta Ikusteneko teknikariei. Aurtengoa, kultura, kulturantzatasuna eta erabilera landu dira bereziki.



Aurkezpenean, ezkerretik hasita, Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia), Estibaliz Alkorta (Eusko Jaurlaritza), Idoia Argoitia (Eibarren AKEBAI) eta Ainara Lavado (...eta kitto! Euskara Elkartea).



Momentuan mintegiaz gozatzeko aukera izan ez zuenak, nahi izanez gero, ...eta kitto!-ko YouTubeko kanalean dauka bideo osoa argitaratuta, hizlari guztien testigantzak jasota:





Idoia Etxeberria, 101 L egitasmoko arduraduna

“Aniztasun linguistiko eta kulturala jaso eta ezagutaraztea da gure helburua”

101 L proiektua Badihardugu Euskara Elkartek sortu zuen Donostialdean hitz egiten diren hizkuntzak jasotzeko eta, pixkanaka, Euskal Herri osora zabaldu da. Jatorri askotako pertsonak aritu dira elkarriketatzen eta, hizkuntzekin batera, haien esperientziak eta iritziak ere jaso dituzte, batez ere 3 gairen inguruan: eleaniztasuna, emigrazioa eta integrazioa. Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ezagutaraztea da webgunen honen helburu, eta Ahotsak.eus Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzen dituen webgunearen barruan dauden egitasmoa da.

101.ahotsak.eus webgunean jasotako bideo gehienak euskeraz eta gaztelaniaz daude. "2015ean hasi ginen Donostian eta Euskal Herri osora zabaltzen joan gara. 250 elkarriketa baino gehiago egin ditugu, eta 101 hizkuntza baino gehiago jaso ditugu", azaldu zuen Idoiak. Webgunean material guztia jasotzen da eta bilaketa modu desberdinetan egin daiteke, izenaren arabera, herrien arabera, proiektuen arabera... Bideoak gaika ere antolatuta daude (abestiak, euskara nola ikasi duten...) eta hizkuntza guztiak azalpen batekin datoz.

"Zumaia eleaniztuna" delakoan 35 hizkuntza jaso dituzte. "Elkarriketatuta guztiek

ikusten zuten euskara baliogarria dela integratziorako eta batzuk euskara ikasten ari ziren. Askok seme-alaben bidez gerturatzeko dira euskarara". esan zuen Idoia Etxeberriak.

Elgoibar eta Eibarren ere jardun dute lanean, bi herrietako udalen eta Eibarren Akebairen laguntzaz. Ikastetxeetako aniztasuna jasotzea izan da helburua eta "Aniztasuna ikasgai" izena jarri diote ekimenari ". Idoiak esan zenez, "30 pertsona elkarriketatuta genituen 9 ikastetxetan, ikasleak eta gurasoak, eta lau ikusentzunezko prestatu genituen", esan zuen. Horrez gain, ikasmateriala sortu dute herri bakoitzerako. Ondorioak garbiak dira: denek ikusten dute euskara baliogarria dela integratziorako; baina kalean erdararako joera handiagoa dago eta horrek zaildu egiten du. Aurreiritziak daudela ere esan dute: "Esate baterako, buruan zapia badaramate askotan pentsatzen dugu ez dakitela euskaraz", azaldu zuen.

Hala ere, oso jarrera ona dela azpimarratu zuen Idoiak. Urretxu-Zumarragan 60 hamarkadan etorritakoekin egon dira. "17 pertsona elkarriketatuta ditugu han. Askotan ez zaie hitza eman eta ahal legin handia egin dute euren seme-alabak euskara ikas dezaten. Hori balioan jartzea da helburuetako bat".



Josu Azpillaga, "Egunean Behin"

“60.000 erabiltzaile aktibo ditu Egunean Behin jolasak astero”

CodeSyntaxeko ingeniaria eta "Egunean behin" jokoaren sortzaileetako bat da Josu Azpillaga. Tribial estiloko galdererantzunen jokoa da Egunean Behin. Egunean partida bakarra jokatzeko aukera ematen du; 10 galdera erantzun behar izaten dira, ahalik eta azkarren. Hiru urte daramatza jokoak martxan. "Denbora asko da, aplikazio digitalak azkar zahartzen direlako Interneten", uste du Josuk.

Egunean Behin baino lehen egon ziren beste saiakera batzuk: "Tribial genuen lehendik sortuta. Sasoi horretan puripurian zegoen HQ Trivia jokoa. Eguneko une batean galderak agertzen ziren, denbora jakin bat zenuen erantzuteko eta, asmatuz gero, hurrengo fasera pasatzen zinen. "Hortik tiraka hasi ginen. Horrelako zerbait genuen buruan, euskal kulturaren inguruko ezagutza areagotzeko eta euskarazko aplikazio mugikorren txertatzeko asmoz". Hasierako zirriborroa egin zuten eta gero aldatuz joan da.

"Jolasa izateaz gain, marketin tresna da guretzat, ikerketarako eta garapenerako balio digu, finantzazioa lortzen da... eta ondo pasatzen dugu gainera!", esan zuen Josuk.

185.000 lagunek instalatu dute Egunean Behin jokoa telefonoetan hiru urte hauetan. "Asko da", azaldu du Josuk:

"Ahoz ahokoak asko funtzionatu du. Teklaren bat ikutu dugu aplikazio honekin". 60.000 erabiltzaile aktibo dituzte astero.

80.000 galdera inguru dituzte datu-basean. Galdera mota desberdinekoak dira. Sortaka sortzen dituzte programa informatikoen bidez. Batzuk eskuz sortzen dituzte, adibidez, pil-pilean dauden gaien ingurukoak. Josuk azpimarratu zuen oso inportantea dela software libreko datu-iturriak edukitzea: Wikipedia, Armiarma datu basea...

Egunean Behin instalatu den gailuetatik %13 daude euskaraz. "Kanpaina bat egin zen eta bikoiztuko egin zen. Gaur egun %22an egon daitezke. Oso garrantzitsua da telefonoan erabiltzen dugun hizkuntza", esan zuen.

Jendeak denbora asko ematen du mugikorren eta hor tarte bat lortzea oso zaila dela esan zuen Josuk. "Joko zelai horretan lortu behar du euskarak leku bat. Ikasleek eskolan baino denbora gehiago ematen dute mugikorrarekin. Hor jokatzen dira gauza asko eta ez dakit benetan kontziente garen. Tarte hori lortzea oso zaila da Netflix edo Instagram bezalakoekin konpetitzen dugulako. Oso garestia da eta estrategiak pentsatu behar dira. Askok daukagu egiteko eta Egunean Behin asko beharko ditugu", uste du Azpillagak.



Naroa Jauregizuria, Ahize AEK-ko aholkularia

“Euskararen mundua ikusgarri eta sentigarri bihurtu behar da gazteentzako”

Periferiako gazteek euskararekiko duten jarrera aztertu du Naroa Jauregizuriak. Bizkai-ko Foru Aldundiak eta Ahize-AEK-kegindako elkarlanerako hitzarmenaren bidez, hurbilketa teorikoa errealitatearekin alderatzeko interbentzioak egin dituzte Leioan, Getxon, Portugaleten, Txurdinagan eta Barakaldon. Gazteei zuzenean galde-tu diete. 15 eta 18 urte bitarteko gazteak izan dira protagonistak. Bost urteko ibilbidea izan du proiektuak eta eragile askorekin aritu dira.

Naroak azaldu zuenez, "aldaketa handiak eman dira azken urteetan. Munduaren ikuskera asko aldatu da. Klean topatzen ez dutena plaza digitalean aurkitzen dute gazteek. Transmisio-sare oso anitzak daude. Hobeto ezagutu dezakete Japoniako talde musikalki bat hementxo bat baino. Ikastetxean euskalduntzen dira gehienak, eta ez etxean", esan zuen. Euskara ikustezina da leku horietan, kopuruz euskaldun gehienak hor bizi badira ere.

Gazte hauek euskara ulertzeko gai dira. Badaukate lotura emozionala. Haurtzaroan egin dute lotura hori. Badaukate euren bizipenetan eta identitatean euskara barneratuta (Olentzero, Pirritx eta Porrotx...), baina nagusitu ahala kanal horiek desagertu egin dira. Adin horretan dauzkaten kanalak ikastetxea eta jaiak dira. Jasotako datuen

arabera, "transmisioa ikastetxetik egin zaie eta jaietan eurak hurbildu dira euskarara".

Nola iritsi gara egoera honetara? "Euskaraz adieraztea kostatzen zaie; kultur edukiak igortzeko sare ahulak dira; euskara gutxiagotuta dago; eta euskararen diskurtso eta iruditeria zaharkituta dago", azaldu duen Naroak.

Hiriguneetan eragitea ezinbestekoa dela uste du: "Euskararen mundua ikusgarri eta sentigarri bihurtu behar da. Horretarako bozgorailuak sortu behar dira. Ezinezkoa da ezagutzen ez duzun hori maitatzea". Bere ustetan normaltasuna da indartu behar dena, "euskara erabilgarria izan behar da sentitzeko, harremanak izateko...". Altxorra baino, euskara baliagarria dela ikusi behar dute gazteek. Momentu honetan ikastetxeen papera ezinbestekoa dela azpimarratu zuen Naroak, baina "ardura politiko eta soziala hor dagoela" nabarmendu zuen.

Periferiako gazteak euskal kulturaren zentrotik urrun daude, eta beraz, sortzaileak eta produktzioa ez dituzte behar bezala ezagutzen. Naroak eta bere lantaldeak bi ekarpen egin dituzte: "Alde batetik, fokua periferian jarri eta horren inguruko hausnarketa sustatzeko jardunaldia antolatu genuen; bestetik, ikastetxeei laguntzeko jarraibide gida eta #Damolatik ikas unitatea sortu ditugu".

"Eibarren elkarrizketatu ditugunek uste dute euskara integratiorako baliogarria dela; baina klean erdararako joera handiagoa dago eta horrek zaildu egiten du".

Idoia Etxeberria

"Asko daukagu egiteko eta Egunean Behin asko beharko ditugu".

Josu Azpillaga

"Ikastetxeen papera ezinbestekoa da, baina ardura politiko eta sozial handia dago".

Naroa Jauregizuria

"Euskararen bigarren iraultza historikoa behar dugu".

Jon Maia

"Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskara oso ahul dago erdaren aurrean".

Iñaki Lurrebaso



Jon Maia, bertsolaria eta kulturantzalea

“Erakundeek salto handia eman behar dute, baina ez dira ausartzen”

Berriki estreinatuta duen 'Kantu bat gara' ikuskizuna kantuaren adierazpen artistikoan oinarritzen dela azaldu zuen Jon Maiak. "Barne prozesu baten ondoren iritsi naiz definizio horretara. Inoiz entzun banauzue, jakingo duzue barne gatazkak izan nituela nire identitatearekin. Ni zer naizen ulertzeko nire aurrekoak zeintzuk ziren ulertu behar izan dut. 25 urterekin jakin nuen nire familia migratzailea zela. Errepublikazaleak izateagatik erbesteratuta, bizitza berria hastera etorriak", esan zuen Maiak.

Gogoeta sakona eskaini zizun zumaiarrak. "Nire abizenetaz lotsatetik, abizenetaz harrotzera pasa nintzen. Etorkinen semea den lehen bertsolaria naiz, eta euskal identitatearen biziberritzearen eta biziraupenaren aldeko diskurtsoa egiteko balio izatea nahi izan dut. Hortik idatzi nuen 'Riomundo'. Umea edo nerabea zarenean, nola kudeatzen duzu hori? Nahiko bakarrik sentitu naiz bide horretan. Orain dela 20 urte hasi nintzen diskurtso inklusibo honekin eta 'Kantu bat gara' ikuskizunera iritsi naiz".

Euskararen bigarren iraultza historikoa behar dugula defendatu zuen. Francoren ondoren emandako lehen iraultzaren ondoren, minimo batzuk lortu ditugu, bai-

na seme-alabei ez diegu eskaini euskaraz bizitzeko mundu bat. Erakundeek salto handia egin behar dute, baina ez dira ausartzen, jendearen erdia haserretu egingo delako. Erdal komunitateak ez du onartuko erakundeetatik jauzi kualitatibo hori".

Horregatik uste du oso inportantea dela bi komunitate horiek elkar ezagutzea: "Erdal komunitatearekiko harremana aldatu egin behar da eta desaktibatu egin behar dira klitxe, korapilo eta aurreiritziak".

Inbertsioekin euskal unibertsioa sortu behar dugula esan zuen Jon Maiak eta, horrela, "haurrak euskal unibertsio batean jaioko dira. Orain, haurrak D ereduan matrikulatzen ditugu, baina ez diegu jendarte eskaldun bat ematen".

Kantua kontzeptu polita, garbia eta inklusiboa dela azaldu zuen. "Gure burua administratiboki eta kritikoki defendatzera joaten gara. Hori aldakorra da, baina beti izango garena da kantu bat. Euskarazko kantu bat, milaka urtetako kantua. Eskerrek azalberritzen jarraitzen duen. Orain dela milaka urtetako lehen euskal doinuetatik orain Arrotxapean egiten diren abestietaraino, dena da kantu berdina. Eta horri esker, kantuak jarraitzen du. Horregatik gara kantu bat.



Iñaki Lurrebaso, Soziologia irakaslea UPV-EHU

“Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutza-mailarako?”

"Euskara asko erabiltzen da dagoen ezagutza-mailarako". Horrela eman zion hasiera bere hitzaldiari Iñaki Lurrebaso irakasle eta ikerlariak. Lurrebaso aditua da demolinguistikari, hizkuntzen portaerak neurtzen dituen disziplinari, hain zuzen ere. Esan zuenez, "hizkuntza baten gaitasuna beti dago erabilera ginetik. Beraz, alderaketa-molde horrek ez du balio ezagutza eta erabilera-maila aztertzeke".

Aztertutako datuen araberak, badirudi gaur egungo euskararen erabilera-maila hiztunek daukaten hizkuntza gaitasunaren ginetik dagoela. "Ondorio horretara iritsi gara erabilera-datuak eta gaitasun-datuak alderagarritasun irizpideekin landu eta euren artean zuzenaren alderatuta. Eta ondorio berera iritsi gara, halaber, hizkuntza-gaitasunaren araberrako hiztun-multzoei egiten duten erabilera aztertuta", esan zuen.

Ikuspegi berri horrek orain arte euskaldunok geure buruaz izan dugun ikuspegia errotik aldatzen du (*gaitasunean indartsu, erabilera ahul* deitu dugun hori), "askotan uste izan dugunaren kontra, erabilera-maila ez baitago gaitasun-mailak eska zezakeenaren azpitik, horren ginetik baino".

Lurrebasok esan zuen hizkuntza-gaitasunari buruzko

datu berrituek baieztatu egiten dutela euskarak bizi duen gutxiagotze egoera larria. Datuek gordin azaleratzen dute, bere ustetan, "gaitasunean ere euskara izugarri ahul dagoela Euskal Herrian erdaren aldean. Hiztunen %7,4ri bakarrik zaio errazago euskaraz hitz egitea erdaraz baino, eta aldiz, erdaraz errazago moldatzen direnak %84,6 dira. "Gure hizkuntza-komunitatea gaixorik dago" bere ustez.

Bestetik, ordea, hizkuntza-gaitasunari buruzko datu berritu hauek eta erabilera-datuak harremanetan jartzen baditugu, eta dagoen gaitasun-mailarako erabilera handia dela onartzen badugu, zeharkako ondorio pozgarri batera iritsiko gara bere ustetan: "Euskaldungoa leiala da bere hizkuntzarekiko".

Laburki esanda, Iñakik azaldu zuenez, "**hizkuntza-gaitasunari** dagokionez, euskara oso ahul dago erdaren aurrean, euskarazko nagusitasuna duten hiztunak oso gutxi dira gaur egun".

Bestalde, **erabilera-maila** horren ginetik dago nabarmen (logika instrumentalari jarraituta egokituko litzaiokeena baino gehiago erabiltzen da euskara).

Azkenik, **euskararekiko jarrrera eta motibazioa** litzateke hiru ardatzen artean mailarik gorenean genukeena.



Martxoko Txikitto! kalean da jada

>>> Joan den astean banatu zen Eibarko LHko ikasle guztien artean martxoko Txikitto!. Aratosteak dira ale horretako protagonista nagusiak. Eskolek, ia-ia erlojuaren kontra, ahalegin handia egin behar izan dute euren lan eta argazki guztiak sasoz heltzeko. Hiru orrialde bete ditugu eskoletan ospatutako aratosteekin, baina eskola bat ahaztu dugu, Arrateko Andra Mari. Horregatik, eta hankasartzea zuzentzeko asmoz, orrialde honetan dituzue eskolan egindako ospakizunak biltzen dituzten hainbat argazki.



Añanako Gatz Haranean izan dira guraso berbalagunak

>>> Gurasoak Berbetan egitasmoak ekintza berria eskaini zien joan den zapatuan berbalagunei: Añanako Gatz Harana bisitatzea. Eguraldia lagun zortzi familia abiatu ziren autobusez Gesaltza Añanarantz. Ordu bete inguruko bidaiatxo leku harri-garri bezain zoragarria iriste-

ko. Gasteiztik 30 kilometrora, Añanako Gatz Haranean mila-ka urtez ustiatu ditu gizakiak ur gaziaren iturburuak, bizitzarako funtsezko produktu bat eskuratzearren: gatza. Bertako gatzagak, gainera, munduko gatz-fabrika zaharrenetakoak dira, 7.000 urte baino gehia-

go baitaramatzate "urre zuria" etengabe ekoizten.

Orain dela milioika urte bertan egon zen itsasoak lur azpian utzitako gatza da Añanako iturburuetatik irteten dena; emari iraunkorra dute, naturalki eta etengabe isurtzen dute ur gazia, bi litro inguru segundoko, gatz

litroko 250 gramoko gazitasun-mailarekin. Haranari hain itxura berezia ematen dioten larrain edo plataformetan pilatzen da ura eta lurrunketa naturalaren bidez lortzen da gatza. Uda sasoiaren egiten da prozesu hori, maiatzetik irailera, eguzkiak gogor jotzen duen hilabeteetan.



Kolore paleta harrigarria. JOXE ARANBERRI

Sailkapeneko lehen postua jokoan Ipuruako Arrate Eibar - Basauri partiduan

>>> Asteburu honetako neurketa berezia bezain zaila izango da Andoni Perezek zuzentzen duen Arrate Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldearentzat. Izan ere, Omega Peripherals Basauri liderrak bisitatuko baitu Ipurua kiroldegia eta eibartarrek lehenengo itzulian Bizkaia aldean lortutako berdinketari fruitua atera nahi izango diote oraingoan, irabaziz gero aurkariekin berdinduta geratuko direlako lidergoan. Azken jardunaldian, dena dela, larri ibili ziren Arratekoak partidua aurrera ateratzeko, ordu laurdenaren faltan eibartarrak bost behetik zihoazelako markagailuan. Azkenean, amaie-

rarako bost segundoren faltan Ane Treviñok gauzatutako penalti bati esker, 34-33 nagusitu zen Arrate Eibar. Naia de Castro eta Amaia San Martin izan ziren goleatzaile nagusienak, zortzi eta zazpi golekin hurrenez hurren.

1. Nazional Mailako mutilen talde nagusiak, bestalde, garaien erraza lortu zuen Romoren aurrean, 39-25 azken emaitzak ondo erakusten duen bezala. Atsedenaldirako zazpi goleko aldearekin erretiratu zen lidergoari eusten dion taldea: Fernando Fernandez mutilek bost puntu ateratzen diote Helvetia Anaitasunari eta hamar Hondarribia Bidasoari.



Mikel Zuloaga izan zen goleatzaile nagusia, zortzirekin, eta taldeko hamabi jokalarik sartu zuten gola, baita atezainak ere. Asteburu honetan Trapagarani egingo diote bisita Arrate Eibar Eskubaloikoek.

Senior mailako bigarren taldeei dagokienez, gizonetzkoen taldeak, kostata izan bazen ere, Usurbil 29-28 menderatu bazuen, emakumezkoenak amore

eman behar izan zuen Ordiziaren aurrean (21-27). Josu Curras mutilek orain dela aste batzuk ere gol batengatik irabazi zuten Elgoibarren jokaturako Euskal Kopa: Universidad de Deusto-Loyola izan zuten azken oztopo eta, markagailuak erakusten duen bezalako lehia estuan (30-31), jakin izan zuten azken minutuetan norgehiagoka euren aldekoa bihurtzea.



Kalamuako hamabost ordezkari sailkatu dira jiu-jitsuko Espainiako txapelketaren finalerako

>>> Aurreko zapatuan Errenteriako Agustina Otaola frontoian jokaturako jiu-jitsuko nazioarteko Openean Kalamua klubeko ordezkariak lan ezinhobea egin zuten eta eurretako hamabostek asteburu honetan Madrilgo Parlan jokaturako Espainiako txapelketako finaletan parte hartzeko txartela eskuratu zuten. Horrez gain, urrezko zazpi dominarekin (Jonatan Terron, Ander

Fernandez, Ander Jimenez, Naroa Garcia, Nekane Mugu-ruza, Maider Urizar eta Adriana Ortega) eta zilarrezko laurekin (Oihana Gonzalez, Diana Vermeulen, Iker Martinez eta Martin Nuñez) bueltatu ziren eibartarrak. Bezperan, barixakuan, Lisboan jokaturako kempo modalitateko Munduko Kopan, Otavio Oscar Kalamuako ordezkari bakarrak ere urrezko domina irabazi zuen.

Oswaldo Gallastegik irabazi zuen Diana elkarteko txapelketa

>>> Diana ehiza eta arrantzaren elkarteko lau ordezkariak lortu zuten aurreko zapatuan Zambranen (Araba) jokaturako ehiza txikiko txapelketan irailean izango den eskualdeko txapelketan parte hartzeko txartela. Elkartearen barneko lehiaketa horretan Oswaldo Gallastegi izan zen onena seniorretan, zortzi eperrekin, eta

atzetik izan zituen Iñigo Gisasola iazko txapeladuna (bost eper eta hiru faisai) eta Kanpe (lau eper eta hiru faisai). Nagusietan, bestalde, oraingoan ere Jose Luis Gisasola nagusitu zen, bina eper eta fisaiekin. Eurak izango dira Eibarko ordezkariak udako oporrak pasatuta jokaturako den eskualdeko hurrengo txapelketan.



Dianako lau sailkatuak irabazitako sariekien.

Binakako pilota txapelketa nagusiko finalistak erabakiko dira etzi Astelenako jaialdian

>>> Azkenaldian pilotazaleen arreta handiena jaso duen lehiaren edizio berria biziko dugu domekan Katedralean. Izan ere, aurreko koadroetan Altuna eta Lasoren arteko norgehiagokak zeresan handia izango du binakako finalean arituko direnak erabakitzerako orduan, beti ere Martijak eta Imazek zeozer esateko izango dutela ahaztu barik. Bezperan Iruñean jokatu den Irribarria-Rezusta eta Elezkan-Zabaleta bikoteen artekoak ere zertxobait erabaki ditzake finalean arituko direnak. Jaialdiaren partidu nagusia hori izango bada ere, etzi izango diren beste bi neurketek ere badute interesik: Ezkurdia-Bikuña eta Pello Etxeberria-Tolosa bikoteen artekoak zabalduko du jaialdia eta Dario eta Elordiren buruz burukoak itxiko du.



Altunak eta Lasok askotan neurtu dituzte indarrak azken aldian.

Gaur afizionatuak

Errendimendu mailako Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa bigarren fasera pasatzea lortu duten alebin eta infantil 2. mailetak bikoteen arteko partiduak hartuko ditu Astelenako gaurko jaialdiak. 19:00etan, ale-

binetan, Eibarko Amillategi-Gil bikoteak Donostiako bikoteari egingo dio aurre; jarraian, infantiletan, eibartarrek Amezketako bikotea izango dute aurrez aurre. 18:15ean hasiko da jaialdia, Deporrek Pilota Eskolako ordezkariekin.



Eibarko Klub Deportiboaren batzarra izango da hilaren 24an

>>> Datorren asteko eguean egingo du Klub Deportivoak urteroko ohiko batzarra, 19:30ean hasiko den bigarren deialdian. Gai-zerrendan, urteroko gaiekin batera (aurreko akten onarpena, 2021eko memoria, kontuen eta bazkide-egoera), 2024an ospatuko duten klubaren urteurrenaren inguruko tratatuko dute. Horretan bidea egiteko, hiru puntu aztertuko dira: 1) Artxiboa, lanak eta egitasmoa; 2) Marka eta komunikazioa; 3) Marketing Plana. Eskaera eta galderekin amaituko da ekitaldia.



Arima Galduak-ekoak bederatzigarren Zaragozako jugger txapelketan

>>> Zaragozako lurraldeko edo erregional mailako txapelketan Arima Galduak-ekoak EA Eko beste bi taldeekin hartu zuten parte eta, Madrilgo taldeak irabazitako torneotan, gure herri-

ko ordezkariak bederatzigarren postuan sailkatu ziren. "Maila handiko taldeak" ikusi ziren lehiaketan, eibartarrek jokatzeko aukera eskaini zieten "hasi berriei, batez ere".

Jesus Castilok Euskadiko txapela jantzi zuen karateko beteranoen mailan

>>> Ortuellako kiroldegian jokatutako karateko beteranoen mailako Euskadiko txapelketan, eibartarrak kata modalitateko urrezko domina irabazi

zuen 60tik 69 urtera artekoen mailan. Paulino Hernandez gure herriko bigarren ordezkariak ez zuen zorte bera izan eta dominik gabe bueltatu zen.



Jesus Castillo txapelduna goian, ezkerretik hasita bigarrena.

Imanol Alesonekin trail irteera eta solasaldia antolatu dute hilaren azken domekarako

>>> Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatutako Jardunaldien barruan VI. Negutriaile egingo da egun horretan, Kalamua Korrikalari Taldearen eskutik. Imanol Aleson mendi lasterkaria gonbidatu dute eta irteeran egingo dituzten geldialdixoetan berarekin solasaldia izateko aukera izango dute, “mendi lasterketen munduan izandako esperientziak eta gomendioak partekatze-ko”. Goizeko 08:30ean irtengo dute Depor aurretik eta, gutxi gorabehera hiru ordu iraungo duen etapan, “zailtasunik gabeko 15 kilometro” osatuko dituzte, 821 metroko goranzko metatuarekin.

Trail irteera doakoa bada ere, interesatuek kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean eman behar dute izena, “batez ere antolaketa lana errazteko”. Antolatzaileek ondorengo materiala gomendatzen dute eramatea: mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait. 1972an Azkoitian jaiotako Imanol Alesonek, bestalde, ibilbide luzea egin du mendi lasterketetan eta, besteren artean, Euforia Andorra Ultra-Trailerra eta Ultra Sanabria Glacier Race probak irabazitakoa da, la Chartreusen egindako markez aparte.

Irteera partaide guztien argazkiarekin hasiko dute eta, T. Etxebarria kaletik Azitaineraino jaitsita, Arrateko pausoen bidea hartuko dute. Lehen atsedengunea Arraten izango dute, “argazkia ateratzeko eta Imanolekin hitzalditxoak izateko”. Handik Kalamuara joateko ohiko bidetik eskuinetara hartuko dute Aizketara igotzeko. Akondiako lepoan aurrera egin, gaina egin eta Garagoitxiko iturrira jaitsiko dira.

Eta, behin Usartzara iritsita, Ixuaraino jarraituko dute asfaltozko errepidetik. Jarraian, Urkoko barrankora doan bidea hartuko dute eta, ondoren, Abeletxe baserrira jaitsi-



ko dira. Hori ezkerrean lagata Arrajolatik Urkora doan zelaia zeharkatuko dute eta, konturatu orduko, Arrajola baserri albotik pasatuta, Itzioko parkinera iritsiko dira. Ondoren, Arratebidetik, Untzagara jaitsiko dira Deporren egoitzan amaitzeko.

Martitzenean Menditour Eibar saioetako bigarren funtzioa izango da Coliseoan

>>> Hurrengo martitzenean, hilaren 22an, 14 minutuko “Amagana” eta 85 minutuko “Le Cavalier mongol” pelikulak eskainiko dituzte Klub Deportiboak antolatutako Mendi Jardunaldien barruko Menditour Eibar saioetako bigarrenan. Oraingoan ere ikusi ahal izango



ditugun lanak BBK Mendifilm Bilbao-Bizkaian saritutakoak dira: lehenengo pelikula, laburrena, Itziar Zabala Dimako eskalatzaile profesionalaren inguruko da eta bigarrena Mongolia iparraldean kokatzen da, tribu nomaden zaldien lapurketak direla-eta, Darhateko

zaldun zaindaria “bera dena berreskuratzeko” Mongoliako taigaren ertzeraino, Siberiako mugan, egiten duen ibilera kontatzeko. Sarrerak Coliseoko leihatilan hartu daitezke ohiko ordu eta egunetan eta, bestela, Kutxabank-en bitartez. Prezioa 5 eurokoa da.



Enara eta Garoa Magunazelaia, Kepa Marquez eta Imanol Egidazurekin.

Bihar goizean Unbeko pistetan atletismo probekin gozatzeko aukera izango da

>>> Emaizta bikainak lortu dituzte Deporrek atletik martxoaren lehen hamabostaldian. Hilaren 1ean eta 2an, Imanol Egidazuk Gipuzkoako marka ezarri zuen (5.043 puntu), urrezko domina irabazteaz gain, Espainiako selekzioarekin Madrilen jokaturako proba konbinatueta: 18 urtez azpiko Iberiar Saria izan zen jokoan bertan. Hilaren 5ean, 18 urtez azpiko Valentziako Espainiako txapelketan, Egidazuk berak bosgarren egin zuen 60 metro hesietan, eta Urko Martinez taldekidea ere han izan zen, hiru huts kateatu bazituen

ere jarraian eta markarik egin gabe geratu. Hilaren 6an Elene Arrazolak Espainiako txapelketerako minima lortu zuen 16 urtez azpiko mailan. Hurrengo asteburuan, hilaren 12an Durangon jokaturako Euskadiko jaurtiketa luzeen txapelketan, Garoa eta Enara Magunazelaia ahizpek urrea eskuratu zuten xabalinarekin, lehenengoak sub-20an eta bigarrenak sub-18an; ondo lagundu zieten Egidazuk (zilarra xabalinan eta brontzea diskoan) eta Kepa Marquezek (urrezkoa disko jaurtiketan). Asteburu horretan Antequeran jokaturako 20

urtez azpiko Espainiako txapelketan, Eneko Larreak altuera jauzian brontzea irabazi zuen. Azkenik, Getafen izandako Espainiako kros txapelketan Ugaitz Gartzia 55. postuan amaitu zuen.

Bestalde, aspaldiko partez, bihar goizean Unbeko pistek eskola mailako atleten frogak hartuko dituzte, apirilean hasiko diren Gipuzkoako txapelketan parte hartu ahal izateko baliogarriak izango direnak. Atletismoa gustuko duzen eibartarrok aukera duzue Unberaigo eta gatzetxoaren lehenengo frogetan animoak emateko.

martxoak 18/19 (barixakua/zapatua)



“UNA NOCHE CON ELLA”

Juan Luis Iborraren KOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 90 minutu

Dosesmás & Pentación (Madril)

Antzezleak: Loles León, Briel Gonzalez, Fran del Pino,

Yeyo Bayeyo (pianoa)

Zuzendaria: Juan Luis Iborra

Loles Leon aktore ezagunak bere arima biluztu eta bere mihi garra-tza askatuko du Espainiako historiaren azken 50 urteetan barrena ibilbide bat egiteko. Kabaretak eta music hall-ak garai desberdinetara eramango dute ikuslea, batzuk pikaragoak eta beste batzuk xalagoak. Unerik garratzenak eta alaiak izango dituen bidaian egoera dibertigarri bezain zentzugabeak bizi ahal izango dira, %80ko errealitatearekin eta %20ko fikzioarekin. Egiaren eta fikzioaren joko eszeniko horretan “ikuslea saiatu daiteke asmatzen, nik ez dudalako ezer argituko” dio Loles Leonek.

““AQUILES””

KALEZ KALEKO IKUSKIZUNA

Urkizun (12:30) eta San Andres pasealekua (20:00) / 60 minutu

LA FAM Teatre (Castello)

Antzezleak: Santi Martinez, Victor Segarra, Juanan Lucena,

Sergio Heredia

Zuzendaria: Sergio Heredia

Villarrealgo konpainiak herriko kaleak zeharkatuko ditu Aquilesekin. Bost metrotik gorako altuera eta 800 kiloko pisua duen erraldoi artikulatuak bi ibilbide egingo ditu Eibarren zehar. Lehenengoan Urkizutik Untzagaraino eramango gaitu. Bigarrenean, bestalde, San Andres pasealekuko Jose Zugastiren “Formen Dantza” eskulturaren ondoan hasita, Errebalgo Jorge Oteizaren “Txopitea ta Pakea” eskulturaren ondoan amaituko da, oraingo honetan pirotekniaz lagunduta. Eskarmentu handiko aktore eta musikariek kalea espazio ezkonbentzional bihurtuko dute.

martxoak 19 (zapatua)



martxoak 23 (eguztena)



“FAKE TRANPANTOJO”

David Caiñaren TRAGIKOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 70 minutu

Erre Produksioak (Bizkaia)

Antzezleak: Maribel Salas, Gemma Martinez, Gorka Minguez, Lorea

Intxausti, Albar Cirarda

Zuzendaria: Gorka Minguez eta David Caiña

Fake anglizismo bat da eta gaur egun eremu digitalean erabiltzen da, faltsua edo errealitatearen kopia bat izanik egiazko bezala erakusten den orori erreferentzia egiteko. Tranpantojoa edo begiari tranpa egitea, aldiz, norbaiti benetan ez dena erakutsi nahian egiten zaion tranpa edo iruzurra da. Gezurra gure kondizio bilakatu da gaur egun: zenbat eta gehiagotan kontatu gezur bat gure buruari, gero eta gehiago sinisten dugu berau egia dela, eta hori da gezurretan okerrena. Egia da ihesian dihoana. Gabon Zahar gauean kokatzen da istorio hau, tranpa bat baino ez den ospakizunean.



Eibarko 45. Antzerki JARDUNALDIAK

Egitarau osoa
deskargatzeko



martxoak 21 **(astelehena)**



“SEMEA PIXKA BAT MOTELAGO DABIL SOILIK”

Ivor Martinic-en **TRAGIKOMEDIA**

Coliseoan, 19:00etan / 90 minutu

Tantaka Teatroa (Gipuzkoa)

Antzezleak: Miren Arrieta, Ane Gabarain, Klara Badiola, Mireia Gabilondo, Asier Hernandez, Ander Iruretagoiena, Xabi “Jabato” Lopez, Maria Redondo, Martxelo Rubio, Jose Ramon Soroz, Dorleta Urretabizkaia

Zuzendaria: Fernando Bernués

Tantaka antzerki-konpainiak 1983an ekin zion bere jarduera profesionalari. Bere ekoizpenen artean, nahita egin zuen jauzi drama naturistatik opera bufora, fartsa, dantza, musikal garaikide edo egokitzapen lirikotik igarota. Eta, hain zuzen ere, estiloaren itxurazko zehaztugabetasun horretan islatzen da ekoizpen eszenikoa ulertzeko duen modua: konpainiaren talde artistikoa ikuskizun bakoitzera egokitzea, inoiz ez alderantziz.

Oraingo honetan “Semea pixka bat motelago dabil soilik” aurkezten digute, Ivor Martinic antzerkigile kroaziarraren testu saritua, Fernando Bernuésen zuzendaritzapean. Beste askoren antzera, Mia ezinbesteko emakumea da bere etxeko egunerokoan. Bere baitako deabruen aurka borrokatzen da, ama, aita, alaba, senar “disidentea” eta, batez ere, Branko semea zaintzen dituen bitartean -Brankok endekapenezko gaixotasun izengabe bat du, eta mugitzeko ahalmena ari da galtzen-. Familiaren etxea askotariko espazioa da eta, bertan, hainbat egoera ikusiko ditugu: batzuk barregarriak, beste batzuk krudelak edo hunkigarriak, eta beste asko sailkaezinak.

martxoak 24 **(eguna)**



“BURDINA/HIERRO”

Adriana Bilbao eta Beñat Achiaryren **DANTZA**

Coliseoan, 19:00etan / 70 minutu

Cía. Adriana Bilbao (Bizkaia/Iparralde)

Antzezleak: Beñat Achiary (ahotsa), Adriana Bilbao (dantza), Raul Micó (kanta), Guillermo Guillen (gitarra), Michel Queuille (pianoa), Luis Mariano, Casillas, Ander Elorza eta Koldo Plazas (harrizulatazaileak)

Zuzendaria: Beñat Achiary (musika) eta Adriana Bilbao (koreografia)

“Burdina” Adriana Bilbao dantzariak eta Beñat Achiary Iparraldeko abeslari eta musikariak sortutako dantza ikuskizuna da. Bertan Gallartako meatze-arroan bizi den emakume andaluziar migratzaile baten istorioa erakusten da. Tragedia baten iragarpenak tristura eta etsipenezko zurrunbilo batera eramaten du, oroitzapenean babestera behartuz. Berea ez den lurralde batean galera bizitzeak zentraltasuna hartzen du eszenan, harik eta azkenean bere zoritxarrari aurre egiten dion arte, bere burua besteren lurrean ahaldundutako emakume oso eta buruasketatuz aldarrikatuz. Hori guztia testuinguru jakin batean: euskal meatzaritza-industria. Obra poetiko eta hunkigarria da, oraina eta iragana, oraina eta oroitzapena, hemengoaren eta hangoaren artekoa.



“Cómicas” antzezlaneko aktoreak aldatu dituzte

MPC Management konpainiak aldaketak egin ditu martxoaren 26an taularatuko den “Cómicas” antzezlanean: Sara Escudero eta Patricia Espejo ezingo dira Eibarrera etorri eta, beraien ordeiz, Carolina Noriega eta Nerea Garmendia arituko dira, Sil De Castro-rekin batera. Antolatzaileek sarrerak bueltatzeko aukera emango dute,

martxoaren 26ra arte. Coliseoko leihatilan sarrera erosi dutenek leihatilan bertan bueltatu beharko dituzte eta Kutxabank bidez erositako kasuan, berriz, kultura@eibar.eus helbidera idatzi beharko dute, sarrerak erosi zituen titularraren izen-abizenak zehaztuz, bueltatzen diren sarrerren ilara eta eserleku-zenbakiekin batera.

2019ko Juan San Martin beka jaso zuen Josu Martinezen ikerketa-lana eman dute argitara

Juan San Martin jaio zela 100 urte beteko diren urte honetan, Eibarko Udalak eta UEUK lankidetzan kaleratutako bekaren emaitza den “Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza” izenburuko liburuak argia ikusi du.

Josu Martinez Martinez zinemagile eta idazleak 2019an jaso zuen beka eta, horri esker, euskarazko zinemari buruzko ikerketa-lan sakona egin du. Liburuan euskarazko zinemaren historia idatzia jaso nahi izan du egileak, horrela, arlo horretan zegoen hutsunea betetzeko asmoz. UEUren argitalpen berrienen artean dagoen lan honek “zazpigarren arteak gure hizkuntzarekin izandako harremanak aztertzen ditu eta, horretarako, hogeigarren mendea zeharkatzen duen ibilbide



bat marraztuz, irudiz eta euskaraz sortutako lanen historia kartografiatzen du. Film eta egile ezezagun ugari aurkituko dituzu orrialdeotan, garai ezberdinetako intelektualen diskurtso, bizipen eta oihartzunak, eta baita hainbat istorio bitxi, triste eta harrigarri ere. Estilo bizi, zorrotz eta dibertigarri batez jorratua, akademiarako ez ezik, publiko zabalarentzat ere interesgarri den lana”.



Zapatuko Ipuinerako izenematea astelehenean hasiko da

Elssie Xalbador antzezle eta ipuin kontalariak “Emakumeak mundua aldatzen” izenburuko kontakizuna eskainiko du Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan antolatutako saioan, martxoaren 26an, 18:00etan, Portaleko areto nagusian.

Xalbadorrek 18 urte daramatza ipuin-kontalari gisa berdintasuna, mitologia, irakurzaletasuna... bultzatzen. Urdaibaiko arte eszenikoen eta zirkuaren Zirkugintza konpainiako kide da gaur egun.

“Emakumeak Mundua Aldatzen” izenburuko ipuin-kontaktetan Elssie Xalbadorrek eza-

gunak ez diren baina zerbait garrantzitsua egin duten emakume berezi horiek omentzen ditu, “emakume izateagatik bakarrik ezarri dizkieten oztopoak haustetik harago. Horiei buruz dauden liburu ederretan oinarrituta, Wangari Maathai ezagutuko dugu, 2004an Bakearen Nobel Saria jaso zuen lehen afrikarra”.

Betiko moduan, hiru urte-tik gorako umeentzako saiora sartzea doan izango da, baina, plaza kopurua mugatua denez, izena eman behar da, Udalaren web-orrian eskuragarri dagoen inprimakia beteta.



Usartzako txistularien kontzertua domekan Untzagan

Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du domekan, 12:45etik aurrera, Untzagan, udaletxeko arkupeetan. Enrique Monterok zuzendko duen emanaldian honako piezak joko dituzte: “Ibai-ona” (orripeko, Joaquin Irureta-

goiena), “Enarak” (bost zatiko ereserkia, J.I. Ansorena), “Soka dantza” (J.I. Ansorena), “Peio Joxepe” (eresia eta aldatetako, J. I. Ansorena), “Aufai!” (jota, J. I. Ansorena) eta “Kito” (“Pequeña suite vasca”, Jose M^a G. Bastida).



Martxoaren 8ko lantaldearen egitaraua hilaren amaieraraino luzatuko da

Martxoaren 8ko lantaldeak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira prestatu duen “Heldu/leku feministak” egitarauaren baitan, Portalean “Berdintasunerako bide luzea. Euskadiko emakumeak XX. mendean” erakusketa ikus daiteke, hilaren 27ra arte. Martitzenean, berriz, Isabel Agirresarobek “Erotik, berotik, zerotik” helduentzako ipuin kontaketa arrakastatsua eskaini zuen Topalekuan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

Bestalde, martxoaren 21etik 31ra arte Errebal Plazan Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako “Itsaspeko bihotzak” erakusketa ikusi ahal izango da. Bertan, euskal haur-literaturaren bidez genero-berdintasunaren gaia landuko dute. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogikoa diseinatu du. Ibilbideak haur-literatura bereziki eta bestelako arte adierazpen batzuk ere (ilustrazioa, joskintza, artisautza, ikus-entzunezkoak...) barne hartzen ditu.

Gainera, martxoaren 23an, “Andrezaharraren manifestua” liburuaren aurkezpena egingo da, eta ondoren solasaldia egingo da Mari Luz Esteban eta Ainhoa Aldazabalen eskutik. Arrate Kultur Elkarteak sustatutako ekitaldia Portaleko areto nagusian izango da, 18:30ean.

Azkenik, martxoaren 24an, mahai-ingurua egingo da “Emakumea eta Kirola. Eta orain, zer?” izenburuari jarraituta. Bertan emakume kirolariek hartuko dute parte: Irati Anda eskalatzaila, Patri Espinar pelotaria, Maialen Chorraut piraguista eta Oihana Azkorbebeitia mendiko korrikalaria arituko dira berbetan, Ana Ramos kazetari eibartarra moderatzaile dutela. Ipuruko foball-zelaiaren instalazioetako 13. prentsa-aretoan egingo da. Jarduera hori Eibar Kirol Elkarteak antolatu eta finantzatu du.

Azkenik, Juan San Martin Liburutegiak, Berdintasun-Andretxea zerbitzuarekin lankidetzan, martxoaren 8arekin eta emakumeekin lotutako irakurketa-gida bat, Heldu/leku feministak (8M 2022) izenekoa prestatu du, baita interesgune bat ere.

BIDEOA IKUSTEKO:



“Grito de mujer” ekimena bueltan

Azken bi urteetan pandemiak galarazi duen “Grito de mujer”, artea eta poesia uztartuko dituen saioa bueltan izango da aurten. Martxoaren 25ean egingo da, 19:00etatik aurrera Errebal Plazan. Parte hartuko duten poeten zerrenda benetan luzea da eta, beste batzuetan bezala, Juan Bautista Gisasola haur abesbatzak eta Alberto Luis Egia pianojoleak lagunduko die. Horiakin batera Kezka dantza taldeak ere hartuko du parte, estreinekoz.

Adolfo Castaños poetaren omenezko saioa, bihar Portalean

Bartzelona eta Eibar artean bizi izan zen Adolfo Castaños Garrofe oroitzeko poesia erreztaldia antolatu dute haren familia eta lagunek, Gerrarik Ez Eibar taldearekin batera. Saio bikoitza prestatu dute: bihar, 18:30ean Portaleko areto nagusian eta domekan, berriz, Bilbon, 12:00etan Malatesta Kultur Lubakian hasiko den ekitaldian omenduko dute. Parte hartuko dutenen artean Oskar, M^a Angeles Igartua, Guiomar Castaños, Monica Merino, Juan Gomez “Txonta”, Garbiñe Perez Kortajarena, Lurdes Gonzalez, Rafa Herce, Felix, Goiko, Al Victor (bideo), Mikel Orrantia, Patxi Dinamita, Mi, Sindy Otero eta Asier Ezenarro daude eta Lorea Perez gitarrak-joleak ipiniko die musika olerkiei. Nahi izanez gero, Adolforen poemak irakurtzeko aukera egingo da.




Apirilerako ikastaroak KZgunean

Eibarko KZgunea apirilerako antolatu dituen ikastaroen eskaintza osoa Interneten ikus daiteke, <https://www.kzgunea.eus/eu/ikastaroak> helbidean. Portaleko 2. pisuan dagoen KZgunea asteleheneetik barixakura zabalitzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako 943 02 36 37 telefonora deitu daiteke.



6 DESBERDINTASUN DAUDE BI IRUDI HAUEN ARTEAN



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

	9		5				3
2	3			4			
		6		3		8	7
1			6			3	
	4						7
		2			4		1
3		4		9		2	
				8			5 9
5					1		3

9	4	1	3	0	8	9	5	
8	5	1	0	8	7	1	2	9
9	8	2	0	0	7	9	1	0
1	6	5	7	2	0	2	9	8
2	2	8	0	5	1	0	7	0
8	9	6	0	0	9	0	7	1
2	1	8	2	0	0	8	0	9
0	9	4	2	9	8	1	0	0
0	2	9	0	1	5	0	0	4

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

2	1	9	7	8	2	0	6	0
0	8	5	8	4	0	1	9	0
6	9	0	5	1	0	8	9	2
2	0	0	1	9	9	8	2	6
8	0	7	1	0	0	2	9	1
1	9	2	8	2	8	7	0	0
7	4	1	0	8	9	5	0	9
5	0	8	9	9	1	4	0	8
9	0	8	0	0	7	6	8	9

soluzioa

4				3		2	
8	2	7					
				9			
3				2	8	7	
	6	2				4	9
		8	4	6			2
				1			
						5	8 3
9	2						7

Martxoak 18/24

BARIXAKUA 18

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Una noche con ella". 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ZAPATUA 19

AZOKA

10:00/14:30 Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka. **11:30/12:30** eta **12:30/13:30** Umeendako tailerrak. Urkizuko parkea.

ANTZERKI JARDUNALDIK

12:30/13:30 "Aquiles" kale-antzerkia. Urkizutik Untzagara. **20:00/21:00** Ego-Gainetik Errebalera.

OMENALDIA

18:30 Adolfo Castaños Garrofe oroitzeko poesia errezitaldia. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Una noche con ella". 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

DOMEKA 20

ZUHAITZ EGUNA

09:30 1. Topagunea Eibarko Klub Deportiboan. **10:00** 2. Topagunea Amaña ikastetxean. **09:30/10:30** Lindariko lursailera oinez joatea. **10:30/13:00** Landaketa. **13:00/14:00** Eibarrera buelta.

MUSIKA

12:45/14:00 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzaga.

KORRIKA KULTURALA

20:00 "Hautsi da anphora", Ruper Ordorika. 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ASTELEHENA 21

BILERA

18:30 Ipuruako Merkatu Plazaren Proiektua: "Zein da gaur egungo egoera hiru urte ostean?". Ipuruako merkatu plaza.

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Semea pixka bat motelago dabil soilik". Korrika Kulturala. 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

MARTITZENA 22

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

MENDI TOUR

18:30 "Amagana" eta "Le cavalier mongol", Bilbao Mendifilm jaialdian saritutako lanen proiektzioa. 5 euro. Coliseo antzokia.

EGUAZTENA 23

IBILALDIA

09:09 Zarautz-Orio. Trenaren irteera-ordua, Ardantzatik (09:11ean Estaziñotik). Bazkaria: Baba-jana Usurbilen.

AURKEZPENA

18:30 "Andrezaharraren manifestua" liburuaren aurkezpena eta solasaldia, Mari Luz Esteban eta Ainhoa Aldazabalen eskutik. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Fake. Trampantojo". 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

EGUENA 24

HITZALDIA

10:00/12:00 "Gerraren egia: informazioa eta desinformazioa". Hizlaria: Josean Blanco (Filologian lizentziatua, Kazetaritzako masterra, Gatazka armatuetako errefuxiatuei laguntzeko Gurutze Gorriko boluntarioa). Ikasten elkartearen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

MAHAI-INGURUA

18:30 "Emakumea eta Kirola. Eta orain, zer?", Eibarko emakume kirolariek. Ipuruako foball-zelaiaren instalazioak (13. prentsa-aretoa).



AURKEZPENA

19:00 ...eta kitto! Euskara Elkartearen irudi korporatibo berria eta astekariaren formatu berria aurkezteko ekitaldia. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIK

19:00 "Burdina/Hierro". 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

BATZARRA

19:30 Eibarko Klub Deportiboaren Urteko Batzar Nagusia bazkideentzat. Deporren.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 27ra arte:

– "BERDINTASUNERAKO BIDE LUZEA. EUSKADIKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN" (Portalea)
– "EIBAR BERDEZKURATU", Ekialdea Bai auzo elkarte (Topaleku)

Martxoaren 31ra arte:

– "VENEZIA", Alvaro del Val-en argazkiak (Portalea jatetxea)
– "UNA TARDE EN EL CIRCO", Alvaro del Val-en argazkiak (Depor taberna)
Hilaren 21etik 31ra arte:
– "ITSASPEKO BIHOTZAK", Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako erakusketa. (Errebal Plaza)

Apirilaren 30era arte:

– "HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

ANTZERKIA

18an (barixakua) / 20:00 Ermua Antzokia "La tarara".

KONTZERTUA

19an (zapateria) / 20:00 Lobiano Kultur Etxea "Family folks" (Galizia).

ITZIARREN

IBILALDIA

20an (domeka) / 07:30 Lasturko plazatik abiatuta Gehienez: 600 lagun. 15 euro. Izen-ematea: www.kirolprobak.com

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Jon Mayora Ibartutxi.** 67 urte. 2022-03-9.
- **Raimundo Rodriguez Mata.** 75 urte. 2022-03-11.
- **Margarita Isasi Olaortua.** 63 urte. 2022-03-13.

Jaiotakoak

- **Ekain Bollain Victoriano.** 2022-03-14.

Farmaziak

BARIXAKUA 18

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 19

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

DOMEKA 20

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 21

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

MARTITZENA 22

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUAZTENA 23

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

EGUENA 24

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIXAKUA 25

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

FUNEUSKADI
Grupo Asintra

FUNERARIA MUGICA
Funeraskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xoxilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

688 62 76 89

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

943 20 09 18

Urkizu, 11 - solaruartera
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARTIN**txo! Hillaren 23an 5 urte beteko dozuz-eta! Disfrutau oparixekin eta patxo haundi bat famelixaren partez! Maite zaittugu!



Zorionak, **NAIA**, astelehenian 10 urte beteko dozuz-eta. Aitxixa, amama eta famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, **IRAIA**, gure etxeko pintzesa! Atzo 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARCO**!! Gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi haundi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **MARTIN**! Gaur 7 urte betetzen dozuz-eta!! Musu eta besarkada erraldoiak famelixa guztiaren partez.



Ongietorri, **EKAIN**, hillaren 14tik gure artian zagoz-eta. Musu pottolo bat famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **JULEN**, domekan 10 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo potolo bat gure mutil haundixari famelixa guztiaren eta, batez be, Alaitz eta Danelen partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **19an:** 17:00, 19:45
- **20an:** 17:00
- **21ean:** 20:30

“Un héroe”

Zuzendaria: Farnad Ashgar



1 ARETOA

- **19an:** 22:30
- **20an:** 20:00

“El sastre”

Zuzendaria: Sonia Liza Kenterman



2 ARETOA

- **19an:** 19:45, 22:30
- **20an:** 20:00
- **21ean:** 20:30

“Malnazidos”

Zuzendaria: Javier Ruiz Caldera



2 ARETOA

- **19an:** 17:00
- **20an:** 17:00

“Super... ¿quién?”

Zuzendaria: Philippe Lacheau



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu eguzkitsua salgai Jardifeta kalean. 2 logela, trasteroa. Garajearekin. Tel. 610890474.

1.2. Errentan

- Zumaian 92 m²-ko pisua alokatzen da abuzturako. 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Igoailuarekin eta zerbitzuetatik gertu kokatua. Tel. 660717372.
- Bi logelako pisua hartuko nuke errentan. Tel. 688862073.
- Matrimonio batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 667060292.
- Logela alokagai Eibar erdialdean. Tel. 660378181.

1.3. Konpartitzeko

- Etxebarrian baserri bat elkarrekin erosi eta konpontzeko lagun bila nabil. Deitu eta baldintza eta egoeraren berri emango dizut. Tel. 605768806. Oier.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Wenceslao Orbean bi bizikleta lagatzeko tokia behar dut. Garajea edo trasteroa hartuko nuke errentan. Lekurik baduzu, mesedez kontaktuan jarri nirekin. Tel. 653722817.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari bezala (kutzazain ikastaroarekin). Tel. 602187142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari bezala (kutzazain ikastaroarekin). Tel. 631483249.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko arratsalde edo asteburuetan. Tel. 617571210.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 642195774.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioa). Esperientziarekin. Tel. 602300286.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako (etxeak, hotelak...) eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671763558.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzako. Tel. 643071900.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta asteburuetan ere. Tel. 688959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziarekin. Tel. 631434584.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 610667535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Baita gaez ere. Tel. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gaez nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Tel. 634856651.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). 10 urteko esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 624669425.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak (ikastaroa eginda) edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632415374.
- Neska eskaintzen da etxe-garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 643202848.

4.2. Langile bila

- Estetika zentro baterako langilea behar da. Ezinbestekoa euskeraz jakitea. Bidali curriculum: olamarsan@gmail.com
- Eskarmentudun sukaldari-laguntzaile behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Sukaldaritzan orientatuta espe-

- rientzia izatea baloratuko da. Tel. 670672515.
- Kamarera/o behar da asteburuetan jantxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.
- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Ordutegia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derrigorrezkoa akreditazioa izatea eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.
- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilea-paintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculum Bidebarrieta 16an..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- DBH3ko ikasleak eskolako lanetan laguntzeko irakaslea behar du. Tel. 687472084.

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Pertsonak mugitzeko garabia salgai. 250 eurotan. Tel. 618083656.

6.4.. Bestelakoak

- Jaiotzeko dauden bikiendako karroa behar dugu Caritasen. Tel. 688751764.
- Gurpil-aulkira egokitu daitekeen motorra behar da. Tel. 690311429. Pilar.



GAURSA

📍 Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

Kontzesionario eta zerbitzu ofizialak

Ibilgailu berriak
Bigarren eskuko ibilgailuak
Mantentze-zerbitzu azkarra
Mekanika
Karrozeria
Ibilgailuen alokairua



DACIA



@grupogaurso



www.gaurso.com



674 801 717

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

GEROA EREIN



Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
-Automatizazioa eta Robotika Industriala	Martxoak 24 18:00
-Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
-Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
-Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
-Mekatronika Industriala	Martxoak 23 18:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 - 664 298 683





Isasi, 37
943 89 92 21




Eibar BHI
<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>

Jardiñeta, 3 B
943 89 92 62